

GOIERRITARRA

Ale berezia!

124 p.k. Ordizia --Goierriko euskaldunon aldizkari-- debaldeko aldizkaria

GOIERRITARRA ALDIZKARIA.

15. zenbakia.


91ko Maiatza-Ekaina



Ordiziako Gazte Asanblada Gaztetxea erre zietenean...

- ❖ UDAL HAUTESKUNDEAK GOIERRIN: ZEINTZU izango dira NOR bailadako udaletxeetan?
- ❖ ANTZERKIA GOIERRIAR ERARA:
- ❖ XABIER AGIRRE aktore legorretar ezagunari eta Idiazabalgo «BI MARIA UDABERRIAN»ekoei elkarrizketa bana
- ❖ JOXE MADARIAGA lazkaotar humorezalearenak eta JUAN JOXE Agirre liburuzainarenak. EUSTAKIO MENDIZABAL «TXIKIA» zenaren inguruan. XABIER MENDIGURENen «Suduraren dardara», ea. kolaborazioen artean.
- ❖ OHIZKO SAILETAN, Inguruotako Kultur Elkarte eta jende ugari agendan, «Lazkao-txiki-keriak», bertsoak eta bertsoak, mitologiak, liburu-kritikak, txutxumutxuak, pertsonaiak, mendi-ibilbideak...

— PERIODIKOAK —




Etorkizunaren erronka

Gertu dagoen erakundea dugu
kutxa, garai berriei aurre egiteko.
Teknika- eta giza baliabiderik
eraginkorrenekin, gailentzeko.
Beharrian berriei egokituriko maila
bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
Alor guztietan aurrera egiteko.
Etorkizun gero eta lehiakorrago
baterantz.

El reto del futuro

Kutxa es una entidad preparada para
afrontar los nuevos tiempos.
Para destacar, con los medios
técnicos y humanos más eficaces.
Para innovar, con servicios de
primera línea, adaptados a las nuevas
necesidades.
Para avanzar en todos los campos.
Hacia un futuro cada vez más
competitivo.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san Sebastián

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

Isiltzen ez den zintzarria

15. zenbakia. 91.eko Maiatza-Ekaina

Debaldeko alea. Tirada: 1.500 ale. 1.300 hartzaile.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"

Kultur Elkartea. Dorre- etxea, behea (Correos azpia).

Tfna: 889612.

124 posta kutxa. Ordizia.

Publizitatearen eta dirulaguntzen sarrak: GK 01* 1.427.276-8

Publizitatea egin nahi duenarentzat jakingarri: orrialde batek 40.000 pezeta balio du. Horren arabera moduloen prezioak: 20.000 orrierdiak. 4.000, 6.000, 8.000, 12.000, e.a.-eko publizitate moduloak dituzu.

2. etapaldirako orain arteko

Udal-Herri laguntzaileak: Olaberria, Itsasondo, Alzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Ikaztegieta, Legorreta., Gaintza, Zaldibia, Ordizia eta Beasaingoak (Azken

hiruren zai, onartu eta agindu bait digute).

Ukatu: Lazkaok, Segura, (iaz bezala, agindu eta gero) Mutiloa eta Zegamakoek

— Ormaiztegi, Ataun, eta Zeraingoan erantzun-zai oraindik.

Erredakzioa Koordinatzailea: Jon Mikel Arano, Xabier Narbarte.

Aholkulariak: Tere Irastortza, eta Andoni Sarriegi.

Ale honetan kolaboratu dute: Andoni Sarriegi, Maite Erauskin, Ramon Ugalde, Mikel Aramendi, J.M. Arrizabalaga, Alazne Iturrioz, Jexux Lete, «Ibai-ertz», Lorea Agirre, Juan Jose Agirre, Joxe Madariaga, Xabier Mendiguren, L. Garmendia, Alda-

pa-gain, Jo.O., K.Z., M.I., J.M. Mendizabal, Miren Goikoetxea, Ana M. Agirre, EHE, Ordiziako Gaztetxea, Kultur-etxea, publizitate emaile eta berriemaileak.

Gure eskerrik beroenak: Goierriko zenbait Udalei. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei (arazo txiki asko ditugu, dei egiguzu, zure aportaziotxo behar dugu), gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudetenei.

Fotokonposizioa, maketazioa eta inprimaketa: ANTZA.

Lege Gordailua: SS 926/89

GOIERRITARRA aldizkaria irekia da eta ez dator nahitaez idazleen iritziekin bat



«Goierritarrak»
Kultur Elkartea

Editorial

Politikoen esanetara

Korrikarako aldapa-gorak. Malkar laztak arribistentzat. Eta, gure errebistarentzat? Piskanaka-piskanaka, bagoaz. Debalde ateratzen da "Goierritarra", Goierriko zenbait Udalei esker, neurri batean: 1.500 aleko tirada hilerio, 1.300dik gora hartzaile postaz, bailadara eta kanpora zabalduz, jaso adinekoa ematen ari da Goierriko aldizkaria. Bere azpiegiturak zerbait sendotu dira kolaboratzaileen esfortzuei esker, makinabat abonaje izan ditu alde guztietatik eta beno, 15. alea kaleratzea lortu da hutsetik hasita. Aldizkari "txiki-txarra", baina besterik ezean, bada geurea; Euskal Herriko hainbat instantziek ezagun duten arren, bertako zenbait Udal eta enpresa mundukoek aintzatzat hartzea merezi ez duena, nonbait.

Kurto honetako lanak ere beteko ditu. Erronka handiagoak ere beteko lituzke, bai baitago mintzagairik, materialik eta indarrik Goierrin. Bai eta astekari bat egiteko lain. Ea zer dioten kanpainan di-

ren honetan Udal-agintaritzarako hautagai berriek, hurrengo ikasturte(ari)ei buruz.

Ala-ta, hauteskunde osteko beste sei hilabete geroagoko erantzun berantiarren zai egon beharko dugu? Aurretik, aurretik! Bada, goitik datozen inizatibek badute laguntza gehiagorik. Bada, horrela ezingo da errekonbertitu, hamabostekarian bihurtu hilabetekari hau. Tajuzko maiztasuneko aldizkaria egin nahi dugu, egiturarako baldintzak jarri. Urtebete da horren bila gabiltzala. Jauregiko gauzak hain doaz trankil, ezen ezin izan dugula bi urteotan askoz gehiagorik egin. Goierriko Udalerrietako Euskara Batzordeei zor zaizkien diru-apurak banatuko zaizkigu aurrerantzean ere? Zer da, bada, egiten duena "Goierritarra" (euskaraz emana izatea bai baino), gizarte eta kultur alorrak jorratzea ezpada? Nork ziurtatzen dio Goierriko euskaldungoari, jendeari, bere zerbitzurako dagoen adierazpen or-

ganuaren iraupena? Jakina da ez dela hainbestearainoko diru-laguntzarik eskatzen: huskeria. Elkarriketa sinple batzuen eta borondate minimo baten baitan dago dena. Politikak ez du zer ikusirik honetan. Goierriko EA, EE, EAJ eta HB: Zuen esanetara.

"Goierritarrak" Kultur Elkartea.



ALTZAGA --Artea Elkartea. Herriko Plaza. Imanol Mujika: Udaletxea. Koldo Garmendia, kultur gizona: 889146. Pako, zinegotzia: 887400.

ATAUN --Ataun Kirol Elkartea. Oargi Elkartea. Troskaeta Elkartea: S. Martin auzoan. --Oargiko "Nondik" aldizkariaren arduradunak: Iñaki Eskisabel: 886408. Xabier Barandiaran: 881029. --Joxemartin Apalategi, antropologoa: 470003 (Zorroaga). --Jone eta Pili Arin: irakasle eta idazleak: San Gregorio: 888702. --Joxe Migel Barandiaran, antropologoa: Sara Etxea, San Gregorio. --Dionisio Galparsoro, Kultura zinegotzia: 881011. (Ataungo Udala). --Juan Manuel Barandiaran (Goierriko Herrien Ekintza): 880062. --Nekane Agirre, irakaslea, 889939. --Mixel Auzmendi, "Egin"eko korrespontsala: Santiagoenea.

BEASAIN --D'os and dont's akademia: 880346. --Bareak, merkatarien elkartea: 881446. --CAFeko langile eta enplegatuen sorospen kutxa: 880364. --Gipuzkoako Foru Aldundia, bidezainen etxea: 880157. --Murumendi Pelotazale Elkartea: 880364. --Goiztiri AEK: 889340. --Soc. Deportiva Beasain: 880874. --Soc. Ciclista Loinaz: 880874. --Asoc. Paralisis Cerebral: 880687. --Udal Euskaltegia: 889094. --Kimuak-Basajaungo gaztetxoak, kale Nagusia, 23. --Aritzera Udalekua, Yartzako ferreriak, 12. --"Ancha es Castilla" musika taldea, kale nagusia, 21-1- d. --Goierriko Asanblada Ekologista: kale nagusia, 44-behea. --Loinaz Abesbatza, Oriamendi 13. --Jabi Ibisate (Goierriko Zine-Kluba): 884347. --Aitzgorri mendi-taldea, J.M.Arana, 2. --Beti-Bizi Kultur Elkartea, Zazpi-Iturrieta, 7. --Alfil Xake Elkartea, J.M.Iturrioz, 23. --Usurbe Elkartea, kale nagusia, 22. --Usurbe zinema: 880761. --Jesus Larrañaga Kultur Elkartea, Ezkiaga poligonoa, 1. --Oria Garaia Kultur Elkartea, Sta. Maria, 5. --Zaharren Egoitza, Erauskin errepidea, 5: 884804. --Arrano Kultur Elkartea, Bista-alaia, 1; 887447. --Lanbide Kultur Elkartea, Juan XXIII, 2. --Beasain Kirol Elkartea, 880838.

--Aitz-zorrotz Elkartea, Oriamendi, 11. --Aralar argazkilaria elkartea, Arana 2. --Juventudes Parroquiales, Sta. Maria 3. --Gaztedi Elkartea, S. Inazio 7. --Aurtzaka Dantza-taldea: 880285. --Osasun Mentaleko Zentrua: 886766. --Lorea Agirre, kazetaria: 881406-371545. --Tere Irastortza, idazlea: 889640. --Andoni Sarriegi, itzultzaile eta idazlea: 882683-887512. --J. Unanua, "DV"ko kronista: 885716. --Xabier Mendiguren Elizegi, idazlea: 887683. --J.A. Insausti, itzultzailea: 277117. --Iñigo Eguren, txiste-kontalaria: 887019. --Mikel Lasa (antimilitarista): 887477. --Xabier Gartzia, idazlea: 882942. --"Palli", konposatzailea: 882286. --Pello Irizar, musikoa, 880779. --Iñaki "Harritta", herrikirolak: 889644. --Iñaki Erguin (Alkatte J.a): 885900 (Udaletxea). --Mikel Sarriegi, Oriamendi, 19-4.: 880065. --Jose Luis Zaldua (Euskara Batzordearen buru): 885900. Mari Paz Martin (Udal Euskaltegiko zuzendari): 889094. Ixabel Olano (andereñoa): 887191-882365. --Juan Bosco Mujika: 886834; Aitor Araña "Azio": 881639 (rugbilariak). Miren Kortaberria, Udal Kultur teknikaria: 885900. JM Telleria, argazkilaria: 884605.

EZKIO-ITSASO --Andoaga Elkartea. --Zelaiando Elkartea. --Antton Idiakez, irakaslea: 889231 (Maizpide). --Maria Rosario Idiakez, itzultzailea: 720267. --Xabier Mendiguren Bereziartua, itzultzailea: 272951.

GABIRIA --Osinalde Elkartea. Erdie Elkartea. --Goruntz Dantza-taldea: 887396. --Iñaki Murua, bertsolaria: 880066/886355. --Marian Bidegain, irakaslea: 889231 (Maizpide). --Andoni eta Mikel Xabier Aizpuru (idazleak):..... --Euxebio Igartzabal, bertsolaria: 884259.

IDIAZABAL --Idiazabal Kirol Elkartea, Kultur-etxea. --Atxurbide Elkartea, Zepai kalea. --Axari Dantza Taldea, Gurutzeberri. --Axari Elkartea, Plaza Nagusia. --Otsua Elkartea, Plaza Nagusia. --Kimu Elkartea, Kale Nagusia, 5. --Pilota Eskola, Igarondo Pilotalekua. --Zirika Irratia: 801099. --Al-

kate J.a.; Martin Lizarazu, Kultur zinegotzia: 801064 (Udaletxea). --Alberto Aldasoro, EHNE-ko Lehendakari: 801940. --Amaia Iparragirre ("Egin"eko kronista):..... --Juan Ramon Gerriko, bertsolaria: 801380.

IKAZTEGIETA --Kultur- zinegotzia, 653329 (Udaletxea). --Asoc. Guipuzcoana Pro-subnormales: 650003. --Iñaki Zubeldia, idazlea: 426319.

ITSASONDO --Gaztetxea, Goiko Plaza. --Arbel-aitz soziedadea, Beheko Plaza. --Bizi-nahi Jubilatuen Egoitza, Udaletxe-azpia. --Itsasondoko Kultur Taldea eta "Kantillape" aldizkaria: 881170 (Udaletxea). --Udal Liburutegia, Udaletxe-azpia. --Mikel Aramendi, idazlea: 421608. --Jexux Lete "Ibai-ertz", idazlea: 885197. --Joxe Mari Mendizabal, kulturako zinegotzia: 885906. --Mikel Mendizabal, bertsolaria: 884898. --Jon Mikel Arano, idazle eta GOIERRITARRAko kazetaria: 889612-882268. --Iñaki Larrañaga, soziologoa: 881161-471912. --Bixente Barandiaran, idazlea: 393833. Josetxo Iturrioz, Itsasondoko Kultur Taldekoa: 884242.

LAZKAO --Danak Elkartea, S. Prudentzio, 25. --Domarda Elkartea, Areso, 7. --Esparru Elkartea, Elozegi 18. --Gerriko S.A., Elozegi 16: 886500. --Gerriko Txokoa, 889943. --Txuri-urdin Elkartea, Hirigoien 12. --Xake Elkartea, S. Prudentzio 27. --Lazkao Kirol Elkartea, Kiroldegia. --Lazkao Abesbatza (Beneditarrek): 880170. --Ama-Lur mendigoizaleak, Areso 7. --Oin-arin Dantza-taldea. --Antzar-gazteak Txaranga. --Euskal Herrian Euskaraz (Gerriko Tabernan). --Goiztiri AEK, Antsotegi etxea: 889340. --Udal Liburutegia, Udaletxea. --Maizpide Euskaltegia: 889231/32. --Mari Joxe Madariaga, Goierriko Euskal Eskola: 886500. --Juan Joxe Agirre, Rufino eta Bittor Mujika, beneditar kultur gizonak: 880170. --Mirentxu Etxezarreta, idazlea: 886705. --Kaki Arkarazo, musikoa: 459629. --Maritxu Dorronsoro, Kultur zinegotzia: 886408. --Pello Aranburu, Dionisio Amundarain (Maizpide Euskal-

tegia): 889231/32. --Pakea Garmendia, kazetaria: 887299. --Xabier Nabarte, bertsolari eta kazetaria: 888344-885174. --J.M.Iztueta "Lazkao-txiki", bertsolaria: 882007. --Aitor Larrañaga, irakaslea: 886408/889231-32. --Drindots Musika-taldea (Jon Urdangarin): 887605. --Josu Agirre (irakaslea: Beasaingo Institutuan). --Zorion Mujika, "DV"ko kronista: --Mikel Albisu, "Egin"eko kronista: 882360. --Bittor Galparsoro, bertsozalea: 886511. --Karmele Santoyo, itzultzailea: 885272.

LEGORRETA --Bilkoin Elkartea, Kale nagusia, 7. --Jotakea Elkartea, Nagusia 10. --J.M. Arrizabalaga, kultur gizona: 886225/806058. --Xabier Agirre, aktorea: 806225 --Peio Iturrioz, itzultzailea: 885850. --Imanol Lazkanoiturburu, argazkilaria: 806060.

OLABERRIA --Guraso Elkartea, S.Juan Plaza. --Asoc. Poblado Jose Maria Aristrain. --Odol-emaileen Elkartea. --Arkupe Elkartea, S.Juan Plaza. --Jose Antonio Olaberria (Aristrain Fundazioa): 880300. --Martin, Udalgizona: 881434 (Udaletxea).

ORDIZIA. --Jakintza Dantza-taldea, Jose Arana kalea. --Txapel Gorri Kirol elkartea, Garagartza plaza. --Azari ehiza eta arrantza elkartea, Urdaneta 10. --Ordiziako Kirol Elkartea. --Ordizia Rugby Elkartea, Etxezarreta kaleko "Batzoki" taberna. --Boxing Ziklokluba, Filipineta 17. --Irriki Kultur Elkartea, Jose Arana kalea. --Ordiziako Gazte Asanblada, Gaztetxea, Filipinas kalea: 888092. Arlote Irratia, idem. --Balakataklin Atsedenaldirako taldea, Kale nagusia 14. --Altamirako Auzo Elkartea: Altamirako eskolak. --Itxaropena Elkartea, Goierrri kalea. --Argi-Berri elkartea, Gipuzkoa kalea. --Larrun-arri elkartea, Jose Arana kalea. --Ordiziako Kultur Etxean, Barrena Jauregia, Nikolas Lekuona Plaza: 881280: Ortazar Argazki Elkartea; Musika Eskola; Bertsolari Eskola; Oroith, Oroith Txiki eta Oroith Txikittoak abesbatzak. --Dorrea Etxean: Sta. Ana eta Sta. Ana Txiki abesbatzak;

Laguntasuna Rondaila; Dorrea Etxea, behean: Beti-Argi Musika Banda; GOIERRITARRA aldizkaria (124. posta kutxa) 889612. --Ordiziako Goiztiri AEK, Sta. Ana Ikastetxea: 889174. --Otsaila, itzulpen-etxea: 889325. --Belen Maiza, kulturako zinegotzia: 880800/886423. --Gema M. Arrugaeta, argazkilaria: 889325. --Ramon Amundarain, irakaslea: 886816. --Imanol Otegi, abokatua: 880851. --Patxi Zubizarreta, idazlea: 882410. --Jon Imanol Iturrioz, kazetaria: 889581. --Ana Irastorza, kazetaria (Azokaren kronikak): 888465. --Garbiñe Mendizabal, Udaletxeko euskara-arduraduna: 885850. --Ramon Ugalde, irakaslea: 880862 (Institutua). --Rafa Arizmendi, "DV"ko kronista, 882126. --Iñaki Hidalgo, Kultur Etxeko arduraduna, 881280. --Alazne Iturrioz eta Pantxike Agirre ("Egunkaria"ko erredaktoreak): 371545. Fax-a: 365493. --Mikel Leunda, EHEko kide: 884335. --Patxi Usabiaga, irakaslea: 883575. Karlos Eskañó, 888092. --Xabi Olano (COP):..... --Jesus Munduate, prentsa korrespontsala: 881065. --Julen Agirre, irakaslea: 884987. --Anjel Insausti, irakaslea: 881205. --Txema Auzmendi, kazetaria: 423644.

ORMAIZTEGI --Barduliarrak Elkartea, Berjaidegi enparantza. --Basozulo Elkartea, Zumalakarregi enparantza. --Zumalakarregi Museoa, Iriarte-Erdikoa baserria: 889900. --Ormaiztegi Kirol Elkartea, S.Andres 14. --Xabier Gurrutxaga, politikaria: 882771. --Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia, irakasleak: 888407. --Joxe Ramon Elortza, bertsolaria: 887524.

SEGURA --Atsedeen Jubilatu Elkartea, Zurbano elkartea. --Elorri Kultur Elkartea, Zurbano 23. --Segura Kirol Elkartea, Kultur etxea. --Guraso Elkartea, Kale nagusia 24. --Txoritegi Elkartea, Zurbano 4. --Zopajale

Elkartea, Lardizabal 3. --Zain-berri dantza taldea: 801207. --Segura Irratia, Zurbano Kalea: 801041. --Karmenxutxeberria, kultura-zinegotzia: 801340. --Joxe Mari Telleria, pintorea: 801217. --Rafael Gerriko, kultur-gizona: 801036.

ZALDIBIA --Udaletxea: 880357. --Alkate J.a: 887576. --Mendi Elkartea: 884856. --Illati Taberna: --Koldo Zubeldia, kultur-gizona: 882278. --Migelanjel Unanua, idazlea: 885306. --Joxe Mari Goikoetxea, musika ekoizlea: 426319. --Joan Mari Olano, politikaria: 458297. --Rufino Iraola, bertsozale eta idazlea: 884353. --Emeterio Sorazu, erretorea: 882890. --Altzo-txiki, bertsolaria: 887576.

ZEGAMA --Zegamako Kasinoa, San Martin 5. --Txarote Elkartea, Txarote auzoa. --Olaberri elkartea: 801115. --Amaia eta Edurne Alustiza, irakasleak: 801171. --Joxean Ormazabal, idazlea: 426319 (Elkar). --Jesus Mari Larrea, kultura zinegotzia: 801053.

ZERAIN --Listormendi Elkartea. --Kultur Etxea (Mari Flor Mendizabal): 801879. --Andoni Alustiza, "Zerain" urtekariaren arduradun: 880700. --Luis Aizpeolea, Udalgizona: 801682.

Abisua: Segurasko, agenda honek jaso beharreko hainbat izen, telefono eta beste zenbait xehetasun, zeuk, irakurle horrek, faltan nabaritu edo behar ez diren gisan azaltzen direla konturatu zinen. Hurrengo agendaren bati hori bera gerta ez dakion, bidal itzazu zure zuzenketa, aportazio eta berriak Ordiziako 124 posta kutxara edo 889612ra.

egin

ORIA - UROLA GARAIA

ORIA-UROLA GARAIA - Korreo kalea 14, 20400 TOLOSA - Tfno. 67 54 11 - 67 54 55

Debaldeko iragarkiak

Lana

- Neska erresponsible eta esperientziaduna etxeko lanetarako prest. 886867.
- Neska bat pronto legoke etxeko-lan edota ume-zain lan egiteko. 884084. Eskerrikasko.
- Goizez edo arratsaldean lan egingo luke andre batek. 160735 tfna.
- Emakume bat lanerako prest dago. 886432.

Salmentak

- Egoera onean dagoen R18 GTD bat salgai. SS-V. 806329 tfna.
- Kitarra akustiko bat saltzen dut. Jose Luis: 722313.
- Nesken-bizikleta berri bat salgai. 886626.

Etxebizitzak

- Pisua salgai Lazkaon. 6.500.000 pzta. Tfna: 886162.
- Beasainen, errentako pisu baten bila nabil. Tfna: 468360.
- Pisua edo buardila nahi nuke alokairuan, Ordizia, Zaldibia, Beasainaldean. Tfna: 885034 eguerditan. 887732.
- Beasain: pisu ekonomikoa, egutera eta jantzia salgai: 889540.
- Etxebizitza nahi eta ezin. Salgai daudenak zeruaren altueran. Espekulazioak agintzen. Errentan? Idem. Etxeak hutsik? Ehundaka! Okupatzerik balego...! Zeruko manaren zai gaude, kale gorrian. Titiriteroak: 888027.

Agurrak:

- Etzan uste, neskato/ ttuntunagoa izango haizenik/ euskaraz mintzatzeagatik;/ itsusia bahaiz euskaraz/ ez haiz politagoa izango erdaraz.

EKITALDIK

LEGORRETAKO FESTEN AMAIERA

Ekainak 1, larunbata: Egurdiko 12-etan, Bilkoin K.K.E-k antolatutako Herri Krossa. Egurdiko 1-etan, Herri Krossaren Sari Bana-keta. Arratsaldeko 6-etan, Ik Ardo dastatze Txapelketa. 6,30-etan, Udalak ardo bikain bat eskainiko du herritar eta bisitari guztientzat. Guzti hau Beasaingo "Koxkola" Txarangak alaitua. Arratsaldeko 7,30-etan, Usariozko Meriendak Plazan, Txarangak alaitua. Ondoren eta goizalderarte, Kalejira eta Dantza Saioa "Koxkola" Txarangarekin.

17.ez Udako Ikastaro trinkoak Maizpide Euskaltegian. Goiherriko Euskal Eskolak orain 17 urte hasitako ekintzen testigarekin jarraituz, Maizpide Euskaltegiak antolatu ditu iadanik aurtan ere, oporraldietako hiru hilabetearako euskal ikastaro trinkoak, 16 urte gorakoentzat. Matrikulatzerakoan, lehenetsuna, goierritarrek eta ikasturtean zehar Maizpiden ibiliek izango dute. Lehenengoa, uztailearen 1etik 19ra, egunean bost ikastordu eta maila guztietakoentzat, alfabetatzeetik hasi eta EGAKoraino. Gainera egun osoan euskaraz eta euskal kulturaren murgiltzeko okasioa izango da eta osagarri bezala, bertso eta dantza ikas-saioak, musean egin eta jaialdiak ikusteko aukera egun osoan zehar.

Bigarren ikastaroa abuztuaren 1etik 23ra eta hirugarrena, irailaren 9tik 27ra. Uztailekoaren modutxokoak hauek ere.

Matrikulak: 9.000 pzta. klaseena bakarrik; 14.500 klaseak eta bazkaria eta 19.500 klaseak eta ostatu osoa. Gainerako zehaztapenak jakiteko, Euskaltegiara jo (889231/32 tfnak.) eta txostena eskatu. Izenemateak maiatzaren 7tik aurrera, ikasle-kopurua osatu arte. Denok ere gutxiako premia badugu eta egun osoan goizetik gauera euskara hutsean aritzeko (ikasi, entzun, mintzatzeko) aukera ezin hobea.

Ordiziako Mendizaleen Irteerak

Maiatzak: 27, Moncayo (Egun osorako). Ekainak: 3, XXV. Umeen Martxa-erregelatua (VIII Olinpiada). 10, Alsasuko Martxa (Goizez). 17, Larraitx-San Migel.

Idiazabalgo Kirol Elkarte. Mendi-sailaren ekintzak.

Maiatzak 26: Botanika erakusketa. Ekainak 2: Araoz-Degurixa. Ekainak 16: Ingurugiro eguna.

Beasain-Ordiziako Goardiako Farmaziak

Maiatza: 20: Azpilikueta; 21: Jauregi; 22: Laurnaga; 23: Cuesta; 24: Arriola; 25-26: Laurnaga; 27: Urbizu; 28: Atorrasagasti; 29: Azpilikueta; 30: Jauregi; 31: Laurnaga.


Ekaina: 1-2: Urbizu; 3: Cuesta; 4: Arriola; 5: Urbizu; 6: Atorrasagasti; 7: Azpilikueta; 8-9: Arriola; 10: Jauregi; 11: Laurnaga; 12: Cuesta; 13: Arriola; 14: Urbizu; 15-16: Azpilikueta; 17: Atorrasagasti; 18: Azpilikueta; 19: Jauregi; 20: Laurnaga;

- Karta Zerbitzua
- Lan menuak

RUBIORENA JATETXEA

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 BEASAIN

ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO ZEU IZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN



UDAKO EUSKAL IKASTAROAK



MAIZPIDE
euskaltegia

Tfna.: (943) 88 92 31 / 32
L A Z K A O

UZTAILA, 1 - 19
ABUZTUA, 1 - 23
IRAILA, 9 - 27

IZEN EMATEA,
MAIATZAREN
ZAZPITIK AUERRERA

**ESKATU
INFORMAZIO
GEHIAGO!**

•Erredakzioaren oharra: Juanito Lasa, E. Jaurilaritzako Barne Sailburu ohiaren emazteak aditzera eman digunez, aurreko GOIERRITARRAren "Txutxumutxuak" sailean emaniko Sailburuari buruzko informazioa ez da horrela: pisurik erosi dute Donostian, baina kostata, 18 urtez gerrikoa estutu beharko dutelarik L.K.A.-n eskatutako kreditua ordaintzekotan. Eta edozeinek behar balitu, froga-agiriak erakusteko prest leudeke. Olaberriko Alkate den Anjel Estensorok esan digunez, Juanito Lasa batzuria baino finagoa dugu. Gure desenkusak informazioa ez kontrastatzeagatik.

•Zer gertatzen da azkenaldian hain goraipatua den Ekologiarekin? Hainbat jende erretxintzen da tabako- erretzaileekin; eta, enpresariari ke txarrekin, zer? Korsari patentea dute, ala? Gutxiago kutsatzen dute? Zer egiten dute ertzainek horretan?

•Ordiziako hauteskunde osterako alkatearentzat bost milioi eta pikuko soldata onartzekotan ziren, dira edo izango dira. Lehenago jakin izan balitz, mila alkategai aterako zirela ordiziar harripeetatik!

•GOIERRITARRAren 14. zenbakian Goierriko meatzeetat aritu ginen. Mutiloaldeko mina-zuloei jatorrizko izena aldatu zietela ez genekien. Orain urte batzuz gero ez dute Lekanburu-ren izenik eta toponimia mesprextatuz "La Troya" deitzen zaie, meazuloen "ate" ihguruan datorren Troi errekararen izena prostituituz. Troya, jaunak, Homeroren Iliada irakurritz aurki daiteke. Nekez euskal toponimian.

•Itsasondoko harrobizuloen inguruko polemikak, hogeitau urte pasa eta oraindik badirau. Berriren bat izango dugu laister.

•Elekzioak: sekula politikarako kezkarik izan ez duen jendea politikan, txanpinoiak bezala ugalduz. Aitaren eta semearen.

•Eusko Jaurilaritzako Joseba Arregi Sailburu Jaunak Goierriin dauden aldizkariak (?) "ezagutzen" ditu. Egunkaria ez du gehiegi irakurtzen. Gobernuak hilabetekari honi 450.000 pezeta luzatu zizkiola-eta (hamabostekarirako proiektuak jai izan zuen), eskerrikasko gure belarriak goxatzeagatik, baino ez du berorrek itxarongo bada balizko bihar edo etziko egunkari ofizialorrenztako lanean hasiko garenik ezta?

•"Euskal Herrian Euskaraz"koen salaketa boletinerako: Euskal Autonomi Elkarteke gutxitu-fisikoen koordinadoraren boletinean, bai 1991ko martxokoan, bai besteetan, hitz bakar bat dator euskara elean: "Elkarte", boletinarene izenburua, alegia. Medikuen boletinean beste hainbeste: "Osasun" edo horrelakoren bat eta gehienez ere editoriala, gaztelania eta euskarazko itzulpenean.

•Tolosako anbulategian, publikoari zuzendutako bulegoan, ez dakite euskaraz.

•Beasaingo "Vinos Elozegi"ren kalendarioak, ez merkeenak-bai xeblereenak. Gaztelania, frantses, ingeles eta alemanez datozte. Euskaldunei ez baino ardoa estranjeroei salduko baitiote.

•Donostiako Erresidentziako egongeletan dauden telebistak Espainiko lehen katean daude eta inork ezin ditu katez aldatu.

•GOIERRITARRA hartzaileei bidaltzea garestitu da: pezeta batetik hamabi eta hemezazpirako igoera aleko. Ale bakoitzak ere bereak eta bi balio duenez, irakurri eta zabalduko al du irakurleak.

•Ia ez dago hiltzerik ere. Aspaldiko gauza da baina beti berria. Donostiako Erresidentzian hiltzen bazara, zure gorpuaren herri-ratzeak 100.000 pztatik gorako kostua du zure tarterikoentzat. Gainerakoak gainera. Tokatzen zaigunean akordatzen gara. Horrek bere arrazoiak baditu, hau eta hura baino hori arreglatuko duenik ez da jaio.

A ze flaxa Ordiziako Rugbi ekipo berean!



Orain urte batzutako argazkia

A ze flaxa Ordiziako Gaztetxean!



Etxebizitzaren arazoa eta hauteskundeak

Etxebizitzaren arazoa garrantzitsua dela, jakina da. Argi dago hauteskondeetara aurkeztzen diren alderdi gehienek dituzten egitarauetan, nabarmen egiten dutela neurri batean arazo larri honi aurkitu beharreko irtenbidea, biztanle gehienek eta bereziki gazteen arazoa dela ezin bait dugu ahantzi. Egunkariak begiratzea aski da, konpondu gabeko arazoa izateaz gain, beste arazo guztiei aurrea hartu diela eta, nola ez, hauteskunde gaitzat erabiltzen ari dela ikusteko.

Hala ere, ez nituzke utzi nahi komentatu gabe gai eztabaidagarri honi buruz hain ugari gertatzen ari diren adierazpenak. Honela, estatu mailan etxebizitza sozialen finantziaketarako egitasmoa gatazka eta adiezinaren sorburu da, gobernuan dagoen alderdiko (PSOE) zenbait kide nagusien artean (horiek diotenez 400.000 etxebizitza sozial eraiki behar dira; ez ote da aurreko hauteskunde orokor batetan alderdi harek berak egin zuen 800.000 lanposturako eman zuen hitza-rekin bezala gertatuko?).

Era berean, Baskongadetan Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugirorako Aholkulari den Larrinaga (EE) jaunak esanak ez du galerarik. Iragandako egunotan egin dituen adierazpenetan udal hauteskundeak pasa ondoren udaletxez udaletxe "deika" ibiliko dela zioen, eta alderdi politikoei beren egitarauetan ziotena betetzera behartuko dituela.

Nahiz eta ez dudan zalantzan jartzen bere nahia eta berak zuzentzen duen sailarena, Udaletxeetako ekimen guztiak bultzatzea dela, harrigarria iruditzen zait Ordiziako Udaletxetik Aholkularitza horretara, Babes Ofizialeko etxebizitzaren jada onartutako bi sustapenei buruzko ikuspegiak eztabaidatu eta argitzeko asmoz, "deika" asteak eman eta gero sail horretako arduradunekin harremanetan jarri ahal ez izatea. Ondorioz, gertatuaren arabera, eta Aholkularitza horren jarrera aldatzen ez den bitartean, Aholkulari horrek etxebizitzaren gaiari buruz egin dituen adierazpenak elektoralista hutsak direla besterik ezin dut esan.

E. Redondo (Ordizia)

Zuk ere salatu euskararen aurkako erasoak

Egunetik egunera gure *hizkuntza nazionalak* jasaten duen eraso, bazterkeria eta zokoratze guzti horien aurrean ezin gara isilik geratu. Euskarak behin eta berriro hartzen dituen ostikaden aurrean ezin gara geratu nora jo jakin gabe. Hizkuntza normalizazioaren bidean ezinbestekoa suertatzen da diskriminazio guzti horien salaketa. Horretarako *Euskal Herrian Euskaraz-ek SALAKETA TELEFONOA* jarri du martxan: (943)278172.

Hemendik aurrera, beraz, dagoen lekutik euskaldun orok izango du nora deitu, euskarak pairatzen duen tokian-tokiko eraso guzti horiek jakinerazteko.

Salaketa guzti horiek bildu, sailkatu eta erregistratu egingo ditugu, lehen fase batetan. Ondoren, eta aldiari behin plaza-ratuak izango dira, horrela guztiok ohartu ahal izango gara zein bortitza den gaztelania zein frantsesarengandik euskarak nozitzen duen zapalketa, eta bidebatez... "arima kendu nahi digutenei hortzak erakusteko...". Dei iezaiguzu eta kontaiguzu.

Udal- Udaletxeak?

Udal hauteskundeak gainean ditugula-edo, Udaletxe demokratiko delakoek 12 urtetako bizitza daramatela eta, Beasaingo HBren agerkari berri eta txukuna atara da, Udalen zereginiei buruz serioen aldizkari horretan mintzatu dira. "Gogor" hilabetekariak ondorio batzu argitaratu ditu, oraintxe aipatzera noanak.

Udaletxea Herri Institutuzioa izanik, zer ez den eta zer izan beharko lukeen argumentatu ondoren, gaurko gure Udaletxeak zer diren deskribatzera pasatzen da. Egungo kate instituzionalaren azken mailak dirateke udaletxeak. Ez bide dira botere politikoaren instrumentuak baizik. Eta ez dute udalerriek eskatzen duten beharrezanez erantzuteko konpetentzi eskasunik ere.

Era berean Udaletxea da planu demokratikoan gutxien garatu den instituzioa eta hori bera erakusten du funtzio-

namendua erregulatzen duten arautegien gehiengoa frankismoaren garaitik etorri izanak. Ondorioa, aparatu burokratizatu, autoritarioa eta kaleari bizkar emanez eginiko gestioa, e.a., e.a.

Euskara Batzordeetara EAJ eta HB-koak besterik ez omen dira agertzen, esaterako. Orain badira hotsak: biharko hutsak?

Loinaz Garmendia (Beasain)

Ordiziako Herriari

Berriro ere asaltatu gaituzte. Badirudi oraingo honetan ez dela polizia izan, Yonkiak deritzan koadrila horretako zerriren batzu baizik. Gertaera hauze izan da: Bi ate puskatu dituzte. Pletina bat, konpakt ekipoa, sintetizadore bat, bi mikro, bi bizikleta, edaria, dirua eta zenbait txapa eta metxero eraman dituzte.

Behin gure buruak --ahal den neurrian behintzat-- baretu ondoren, hoberena triapak jatea eta izurratzea dela pentsatzen dugu. Garbi dago heroina kontsumitzeagatik datozen ondorioak arazo sozialak direla eta guk hoiaren aurrean ezer gutxi egin dezakegu. Baina, egunero Ordiziako kaleetan libertade osoz egiten den trapi-xeoa lotsagabea salatu dezakegu. Hala ere, duela gutxi Eibarren burututako ak-tuazio espektakularra ez ez duela ezer konpontzen pentsatzen dugu, nahiz eta hauteskunde garaian itxurakeria bat izan.

Egoera hau zuzenki jasaten dugunok, bildu gaitezkeela eta bildu beharra daukagula ikusten dugu, denon artean irten-bide eraginkor bat lortzeko asmoz. Hala ere, ez ditugu gure buruak engainatu behar, gure begibistatik desagertzea lortu badezakegu ere, ezin dugu hor daudela ukatu, gizarte insolidario hau radikalki aldatzeko gauza handirik egin ezin dugun bezala.

Azkenean, orain arte bezala jarraitu beharko dugu; helburutzat Utopia hartuz, eguneroko lanarekin, oraintxe bertan gertatu zaigunak sortu dizkigun kontraesanak desorientarazi gaitzan utzi gabe.

Arlote Irratia
Ordiziako Gazte Asanblada



Xabier Gurrutxaga
(EE) Diputatu Nagusi gai

Xabier Gurrutxaga Aizpeolea ormaiztegiarra izendatu du Euskadiko Ezkerrak Gipuzkoako Diputatu Nagusirako hautagaia. Politikari gaztea dugu Gurrutxaga, politika munduan aspaldidanik sartua, ikastolako maisu izan eta gero. Gipuzkoako aurrebidea garantizatzeke premia azpimarratzen du, honela gipuzkoarren ongizatea ziurtatu ahal izateko.

Diputatu Nagusirako hautagaiak azken agintaldian egindako lana oso modu egokian baloratzen du, eta bere ustetan gaur egun Gipuzkoako hiritarrak, orohar, orain lau urte baino hobeto bizi dira.

Euskadiko Ezkerrako burukide honek dituen kezken artean aipa ditzakegu, besteak beste: garapen ekonomiko orokor bat, ingurugiroa ahaztuko ez duena; behar bezalako azpiegiturak - batez ere errepi-deak-; iruzur fiskalaren kontrako borroka; gizarte-ongizateko zerbitzu onak; eta helburu nagusia, gizarteratze zabalago bat lortzea, honen oinarrietariko bat benetazko gizarte elebiduna lortzea dela-rik.



Inazio Estensoro, Lazkaoko
EAJren listaburu

Inazio Estensoro Eskisabel injinaria da eta alkateorde orain artean. Hirigintza batzordeko burua izan da.

--Nolakoa da Lazkao zenbakietan?

I.E.--Lazkao 5.000 biztanle inguruan dago eta punto honetan gainera nahiko arazo inportantea daukagu momentu ho-

netan. Zentsua egiten ari gara eta 50 edo 60 pertsona falta dira 5.000 biztanlera heltzeko eta honek Udaletxeko aurrekontuetan zenbait eragin negatibo eduki dezake. Horregatik garrantzitsua da herri-tarrak honetaz arduratu eta ahal den guztia egitea Lazkaon bizi direnak ongi erre-flejatuak izan ditzeten. Gero presupues-toetan 250 miloi ditu guztira eta hauetatik 150 miloi gasto korriente edo gasto kon-prometituak dira eta beste 50tik 100 mi-loira erabiltzea badaukagu inbertsio berrietan. Biztanle aldetik beherakadako tendentzi txiki bat dagoen arren orokorki nahiko estabilizatua dago.




Juan Bizente Erauskin
Ordiziako EAJ

Juan Bizente Erauskin alkategai gazteenetakoa dugu, inkorporatu berria Jeldikideen Alderdira. Festetako "Alkate-txiki" izan zen eta hortik datorkio non-bait. O.K.E.-ren eta bertako Industrial-dearen arduradun, euskaldunberria da eta "Habe" eta GOIERRITARRA irakurtzen ditu gustoen euskaraz.

Adierazi zigunez, "EAJk, euskaldunek betidanetik ontzat izan dituzten balioak, zintotasuna eta emandako hitzari zor zaion errespetua sendotzeko hartu behar diren neurriak hartzen saiatuko da Ordiziako udaletik". "Kultura adiera zehatzean harturik, berriz, lau sailetan burutuko du EAJk bere politika:


a) Ordiziako kultur ondarea gorde: banda, rondalla, Abesbatzak, Musika Eskola, Barrena-ko kultur ihardunaldiak, kirol elkarteak eta abar. Ordiziak kultur mugimendu haundia du, Estatuko edozein herritakoa baino haundiagoa batz beste.

b) Ordiziako udaletxeak, dezakeen neurrian, herritarrengan kultur kezkek sortzeko erantzukizuna du. Honela gizon- emakume osoagoak eta geroko gizar-tean itsatsiengoak bihurtuko bait dira. Ez ditugu gehiago xehatu nahi. Orain arteko bidea ona dela uste dugu eta bide beretik egin behar dugu aurrera, ahal dela hobeturik eta herri-ekimenari lagunduz, eta gaurregungo kultur eskaintza gehituz eta hobetuz.



Jabier Arrondo
Zegamako H.B.

Zegamako Herri Batasunak dituen helburuen artean hauek egongo lirateke beraien esanetan. "Kontutan hartu behar da azkenengo lau urte hauetan HB oposizioan egon dela. Hala ere saiatu gara beste udalkideekin batera herriaren hobekuntzan parte hartzen eta lan egiten. Agian ez dugu jakin alkatetza bere esku izan duen talde politikoarekin izan ditugun diferentziak herriari behar bezala adierazten, hau da, euskara, autodeterminazioa, autobia, Egunkaria, idazkari euskalduna, Elektra eta beste hainbat", diote HBkoek. Aipatzen dute ahalegindu direla herriari informazioa eskeintzen, triptikoak, Arau subsidiarioak panelen bidez zabalduz, ikastolaren arazoa zela eta herri batzarrak eginez. "Baina hala ere, orohar, gure ustez Udaletxeko tabloia gehiago erabili behar zuen Udalak, herritarrak sistematikoki informatzeko".



Juan Aramendi
Beasaingo EAtik

Juanito Aramendi, itsasondoa besaineratua berau, EAKo zerrendaburua dugu Beasaingo alkatezarako. Olaberriko Aristrainen lan egin du perito gisa, orain erretiraturik badago ere. Zenbait junte-tako partaide, abertzale ezaguna da; euskarazko klaseak ere eman izan ditu Beasaingo Batzokian.

Politika kontinuitista bat aurrera eramango dutela dio.



**EXE
ALAI**

JATETXEA

885255

DONOSTIA

ALTZAGA

Itzazondo Ordizia GASTEIZ

T	▲	A
M	PA	A
Y	PEL	O

☐ OFIZINARAKO MATERIALA
☐ ESKOLARAKO MATERIALA
☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80' 20240 ORDIZIA

HEGOA

TABERNA

Goierrri Kalea, 12 (Atzekaldea) ORDIZIA

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

OSTATU TABERNA

Giro Jatorra

IKAZTEGIETA

**GIROA
TABERNA**

ZURE GIROA

Areso, 6
Tfna: 88 77 40. LAZKAO

Bilore

Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

IRVROK S. L.

ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA

Zein izango den Nor gure Udaletxeetan

Errepasoalditxo hau kaleratzen denerako Udal Hauteskundeak gainean izango ditugu, pasa ez badira. Herrian herriko hautagai guztien zerrendak egitea ezinezkoa zaigunez, zerrenda abertzale bakoitzeko hiru lehenen izenak ematea baino ez zaigu bururatu, inpartzialitatearen mesedetan. Bide labainkorrak bait dira politikarenak.

Dudarik ez dago, Goierriko herrietako politika panorama zerbait aldatuko da aurrerantzean. Hautagai-hautatu berriak, esperientzirik gabeko eta esperientziadun gazte jende berria, Ikaztegiako Ados Hauteskunde Elkarte eta Zaldi-Ibiaren esperientzi berriak zer fruitu emango dituzten, EA-EAJ-ren koalizioa Zegaman, HBren Goierri-Programa bateratzailea, PSOE ren proposamenak euskara "meritu" kontsideratua izan dadin lanpostuak lortzerakoan... ikuskizun daude zertuko ote diren promesak. Bizi denak ikusiko ditu.

GOIERRITARRAK egindako bidearekin erakutsi du bere izakera: abertzale eta euskaltzale bezala jokatu du. Berorixe opa diegu oraingo hautagaiei, biharko anukeratupei.

EZKIO-ITSASO:

Herri Batasuna: Iñaki Idiákez. Tomas Etxaniz. Pedro Iza.

Ezkio-Itsasoko Herrikideak: Migel Anjel Idiákez. Jose Mari Zumarraga. M. Pilar Mujika.

GABIRIA:

Eusko Alkartasuna: Xabier Aitor Murua. Frantzisko Jabier Arratibel. Jose Kruz Baztarrika.

Auzo-Artea: Maria Anjeles Bidegain. Iñaki Maiz. Nikolas Igarzabal.

MUTILOA:

Mutiloako Herri Kandidatura: Jose Leikuona. Jose Alustiza. Primitibo Iparragiri.

ORMAIZTEGI:

E.A.J.-P.N.V.: Juan Karlos Leturia. Karlos Illarramendi. M. Begoña Vildosola.

Herri Batasuna: Jesus Etxarri. Roman Larena. Anjel M. Elorza.

Euskadiko Ezkerra: Inazio M Urdangarin. Sabino Ezkurdia. M. Rosario Sagarna.

Eusko Alkartasuna: Jon Mikel Murua. Jose Inazio Zuazola. Jose Manuel Elizegi.

SEGURA:

Herri Batasuna: Jabier Albizu. Salvador Agirre. Bixente Albisu.

E.A.J.-P.N.V.: Ramon Leturia. Manu Errezola. Inazio Etxeberria.

Eusko Alkartasuna: Mari Karmen Etxeberria. Zeferino Agirre. Kruz Mari Goikoetxea.

ZEGAMA:

Herri Batasuna: Jose Jabier Arrondo. Anjel Idigoras. Juan Mari Gereñu.

"Zegama Lantzen": Jesus M^a Larrea. Segundo Oiarbide. Inazio Mari Urbizu.

ZERAIN:

Zerain Herri Kandidatura: Jose Berasategi. Antonio Garzia. Jose Manuel Oria.

ABALTZISKETA:

Herritarren Iritzia: Jesus Mari Gonzalez. Franzisko Jabier Egunez. Asentsio Otamendi.

ALTZAGA:

Herri Batasuna: Imanol Mujika.

AMEZKETA:

Herri Batasuna: Joakin Galarza. Luis Anjel Lizarribar. Mikel Goñi.

ARAMA:

Aramako Herri Batzarra: Joakin Mujika. Emilio Arizmendi. Sebero Zubeldia.

ATAUN:

Euskadiko Ezkerra: Aitor Auzmendi.

Santi Etxeberria. Felipe Altuna.

E.A.J.-P.N.V.: Dionisio Galparsoro. Fermín Arrese. Joxe Antonio Begiristain.

Herri Batasuna: Joxe Mari Urdangarin. Mitxel Auzmendi. Pedro Auzmendi.

BALIARRAIN:

Herritarra: Jose Ramon Zubeldia.

BEASAIN:

Euskadiko Ezkerra: Migel M^a Zaldua. Ana Isabel Asla. Jose Mari Telleria.

E.A.J.-P.N.V.: Jose Luis Artola. Ion Jaurregi. Maria Aranzazu Aseginolaza.

Herri Batasuna: Josune Agirre. Jon Gorrotxategi. Juan Jose Lasa.

Eusko Alkartasuna: Juan Aramendi. Migel Anjel Enparanza. Jose Inazio Insausti.

IDIAZABAL:

E.A.J.-P.N.V.: Andres Iparragirre. Seberiano Ariztimuño. Agapito Oiarbide.

Herri Batasuna: Martin Lizarazu. Maria Ester Munduate. Alberto Aldasoro.

Euskadiko Ezkerra: Miren Gurutze Baztarrika. Pedro Mari Urkia. Mari Jose Mujika.

Eusko Alkartasuna: Antonio Irizar. Anastasio Calvo. Antonio Telleria.

IKAZTEGIETA:

Ados Hauteskunde Elkarte: Jose Ramon Apalategi. Migel Anjel Azaldeggi. Jose Antonio Dorronsoro.

Herri Batasuna: Iñaki Larrea. Mari Karmen Oronoz. Jesus Mari Garmendia.

ITSASONDO:

Itsasondoko Talde Herrikoia: Maite Amundarain. Felipe Sarasola. Manuel Mari Agirre.

Herri Batasuna: Jose Luis Aranburu. Juan Arbilla. Blanka Ester Mujika.

LAZKAO:

Euskadiko Ezkerra: Agustin Insausti. Jose Antonio Anduaga. Jose Antonio Leunda.

E.A.J.-P.N.V.: Inazio Estensoro. Felipe Barandiaran. Jose Esteban Eskisabel.

Herri Batasuna: Patxi Senar. Patxi Madariaga. Aitor Larrañaga.

Eusko Alkartasuna: Martin Aranburu. Arantxa Zumelaga. Asier Sarriegi.

LEGORRETA:

E.A.J.-P.N.V.: Jose Inazio Iturrioz. Jose Maria Ibañez. Franzisko J. Iraola.

Euskadiko Ezkerra: Zeferino Zunzunegi. Jose Inazio Iglesias. Maria Pilar Martiarena.

Herri Batasuna: Jabier Larrauri. Jose Luis Urretabizkaia. Jose Manuel Larrea.

OLABERRIA:

Olaberriko Herri Elkarte: Anjel Estensoro. Jesus Mari Imaz. Alberto Irastorza (Independienteak).

ORDIZIA:

Euskadiko Ezkerra: Jose Inazio Arruabarrena. Kepa Korta. Iñaki Calvillo.

E.A.J.-P.N.V.: Juan Bizente Erauskin. Eusebio Iziar. Jose Luis Ormazabal.

Herri Batasuna: Ramon Amundarain. Jose Luis Sukia. Arantxa Altuna.

Eusko Alkartasuna: Jose Mari Barandiaran. Jesus Maria Jose Lariz. Belen Maiza.

ORENDAIN:

Herri Batasuna: Martin Migel Egia. Maria Teresa Eizagirre. Juan Joxe Arregi.

Eusko Alkartasuna: Maria Teresa Irazusta. Daniel Gorostidi. Manuel Urkola.

ZALDIBIA:

Zaldi-Ibia Udal Taldea: Migel Mari Irastorza. Garbiñe Mendizabal. Fermin Imaz.

Herri Batasuna: Jose Inazio Erauskin. Mariasun Asurabarrena. Mari Karmen Irastortza.

“Oria” Eskualdetik, eta Goierritik bereziki, Gipuzkoako Juntetara aukeraturik aterako balira joateko posibilitateren bat luketeenak hauek lirake:

E.A.J.-tik: Juan Bizente Erauskin eta Inazio Estensoro. Euskadiko Ezkerratik: Xabier Gurrutxaga, Kepa Korta, M. Ana Isabel Asla, Zeferino Zunzunegi eta Migel Zaldia. Herri Batasunatik: Josune Agirre, Ramon Amundarain eta Patxi Senar. P.S.O.E.-tik, Ordizako alkategai den Antonio Dopazo eta Eusko Alkartasunatik: Belen Maiza eta Jon Mikel Murua.



HBren Goierri-programa proiektuko kideak



Zaldibiako Zaldi-Ibia kandidatura



Legorreta, Altzaga, Arama eta Itsasondoko egungo alkateak



Beasaingo HBko hautagaiak



Ordiziako HB



Beasaingo EA



Zerain Herri kandidatura (bakarra):
Iñaki Berasategi



Lazkao EAJ-PNV



Ordiziako EE



Aitor Auzmendi, Ataungo EE



SUSKRIBITU ZAITEZ!

**IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRRITARRA**
GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.

Juan Joxe Agirre: «Lazkaoko artxibategia lan serioa egitera datorrenarentzat dago zabalik»

A. ITURRIOTZ / LAZKAO

Francisco Letamendia Ortizik 'Euskadi, Pueblo y Nación' bere tesiaren hitzaurrean aipamen berezia egiten du Juan Jose Agirre, Lazkaoko Benediktarren komentuko artxibero-bibliotekarioaz; «beronen laguntzarik gabe, ezin izango nukeelako nire tesia osatu» dio. Azken urteotan, Ortizik bezala, beste irakasle askok ere Lazkaoko artxiboan mamitu dituzte beren tesiak. Garai bateko alderdi politikoen agerkari guztiak bildu ditu azken hogeitau urteotan Agirrek eta beste inon nekez aurki daitezkeen agiriak daude bertan; 40.000 liburutik gora, 1.200 aldizkari inguru, milaka panfleto, ehundaka pegatina. «Liburutegia osatzen hasi nintzenean, kalean mugimendu politikoa suspertzen ari zen, eta alderdi politikoei, bai hegoaldean zein Iparraldean, klandestinitatean kaleratzen zituzten aldizkako publikazioak biltzen hasi nintzen. Kaleratzen zituzten panfletoak ere bildu nituen. Senak esaten zidan biharko egunean balioa izango zutela dokumentu hauek, baina ez nuen inolaz ere uste izan hainbestearainoko arakasta izango zukeenik nire bilduma lanak».

Artxiboaren ardura hartu aurretik, Agirre benediktarren eskolako zuzendaria zen. «Eskola itxi zenean, ez neukan lan fijoarik, eta liburutegia beste inork bere gain hartu nahi ez zuenez, neronek hartu nuen. Artxibo bat nola eramaten zen ez nekien eta Barcelonako



GEMA. M. ARRUGAETA

SOSLAIA

'Liburu gose'

Goizeko 6.20etan jaikitzen da Maitinetara joateko, otoitzera. Ordu laurdeneko atsedenaaldiaren ostean, 7.30tan, berriro elizara, 'Orratz Erreak' abestera. 8etan meza, eta gosaldutik ondoren, bazkalordura arte lanean aritzen da liburutegian Juan Joxe Agirre eta baita arratsaldean ere. Liburutegira etortzen den jendearekin oso irekia da. «Bakarrik utziz gero ez lukete ezer aurkituko eta nire laguntza ezinbestekoa zaie». Harrigarria bada ere, Agirrek badaki liburu bakoitza non, zein apal eta txoko-tan dagoen.

Montserrat-eko bibliotekara joan nintzen, urtebeterako, ikastera. Hantxe sortu zitzaidan 'liburu gosea'. Lazkaora itzulita, buru-belarri sartu zen Agirre bibliotekan, artxibategi historiko garaikidea osatu asmoz. «Baldetako liburu zaharrak ordenatu gabe zeuden eta aldizkariak enkuadernatu gabe. Nire lehenengo lana, zer liburu zegoen jakin eta horiek materiala sailkatzea izan zen. Aurkitutako gauzarik interesgarriena XVI. mendeko liburu sail bat izan zen. Horretaz gain, euskal liburu zaharren bilduma dexentea daukagu, Sarako Etxeberriren 'Manual Devocionezkoa', esaterako». Hegoaldean aldizkako agerkariak inork ez zituen ez ordurarte bildu, Iparralde eta Pariseko artxibategietara jo zuen Agirrek, falta zitzaizkion ale solteen bila eta handik eta hemendik aldizkari bilduma aintzatu osatu zituen.

Zalantzarik ez dago, Derioko liburutegiarekin batera, Lazkaoko delat Euskal Herriak duen artxibategirik osotuen. Gauzak horrela, 'lan serioa egitera datorren edonori' zabaltzen dizkiete artxibategiko atak Lazkaoko fraileek, Agirrek dioenez. «Baina bertara datorrenak zer nahi duen ondo zehaztu behar du aurretik, edonoren eskutik ez bait ditugu dokumentuak utziko!». Uneotan Euskal Gaiekin ari dira 'jo eta ke' eta hilabete amaierarako bukatuta izango dute Euskal Liburutegia. «Euskal gaiei lehentasuna eman diegu. Hauekin amaituta, gainontzeko liburuekin hasiko gara».

Foto-berri eta testu-zaharrak


Gure artxiboa osatze-ahaleginetan, sarituak izango dira foto-berri eta testu-zaharrak (edota alderantziz, foto-zahar eta testu berriak) 124. posta kutxara bidaltzerako aukartzen diren guztiak.

Aipatutako kopiak, fotografikoak nahiz fotokopiak, e.a., Goierriekin edota bertako herriei zer ikusirik balute, hobe baino hobeto. Saria, orain arteko GOIERRITARRA guztiak ez ezik hemendik aurrerakoak ere jasotzeaz gain, publikatu egingo zaiola bidaltzaileari.

Animo!



Eustakio Mendizabal "Txikia" zenak euskaratutako kantua



1966-67 inguruan gertatu zen. Beasainen, OARGUIko gazte- taldeak eraginda, garai hartan Euskal Kantuen interpretaritzan modan zegoenari jarraiki, *zortzikote* kantari bat sortu zen "Gazte-Berri" ize-narekin. Bizpahiru urtetan Goierri aldeko herrietan, Elorrioren eta Eibarren (hemen 16ko abesbatza gisa) ihardun ondoren, Zuzendaririk gabe gelditu eta bere hartan itzali zen.

Lau ahots berdinetara abestu ohi zuen (tankera horretako taldeek ohi zuten legez) baina horrelako taldeetan oso ohizkoa ez zen printzipio bat betetzeko hitz emana zuen: *euskaraz kantatzekoa alegia*

Euskaldun askok lehendik ere izan duten gesalkeria segituz eta 1936ko gerra ostean ezarritako euskarazko gauza guztien debekuaren ondorio legez, kantujenero horretan hainbat zortziko eta beste espainierazko letrekin zeuden.

Askotan gainera xelebre, irigarri eta bitxiak ere suertatzen ziren letra horiek, hotz-hotzean aztertuta, izan ere, ordurarte euskaldunena mantendutako baserri-giroko eta herri txikiak bizitzako gauzak espainieraz adieraztea bera alde batetik eta adierazteko modu gesal eta paltal hura bestetik, folklokeria merkearen adierazle baino ez bait ziren gertatzen.

Horrela bada, zortzikote beasaindar horrek, erderaz zeudenak euskaratzea pentsatu zuen, orduko euskal jaietan etab. kantatu ahal izateko (erdaraz kantatzeak zentzurik ez zuela ongi eritzita). Musikaz hain polita zen "Nortxu" honekin topo egitean, euskaraz jartzeko talentudunik ez zegoen garai hartan Beasainen eta Lazkaoako Beneditarretara jo zuten talde hartako bi gaztek.

Garai hartan euskal idazle-erreferentziadunak Amundarain anaiak ziren kalerako (Dionisio eta Benito) eta haien galdez joan ziren komentura. Egun hartan ordean, ez ziren nonbait han suertatu eta atera Eustakio Mendizabal zena irten zitzaizen. Zertara zihoazen adierazirik, hori horrenbeste berak ere egingo ziela aginduzien eta aste pareren baten buruan ondoren jatorrizkoarekin doan letra polit hori prestatu zien.

Nortxu

Vengo de las montañas
y al caserío voy
espérame en la puerta
que hemos de hablar los dos.
Dicen que has dicho neska
que quieres a un pastor
que ya me has olvidado
y yo he dicho que no.

Las neskas de mi tierra
tienen gran corazón
son claras como el día
es por la luz del sol
y en sus ojos no anidan
el odio y la pasión.

Nortxu mía ven, conmigo al mar
allí las olas tranquilas cantarán.
Nortxu mía, nuestro gran amor
igual que el eco de una oración.

Nortxu (itzuli-moldatua)

Menditik basarrira
natorkizu ariñ
zaude atean biok
dezagun itzegiñ.
Artzai gazte bat maite
dezula diote
eta aztu nauzula
baño ez dut uste.

Nere erriko neskak
dira biotz aundi
eta eguna beziñ
dizditsu ta argi
gorroto-griniñ gabe
begi-biotz garbi.

Nortxu zatoz, itxas-ertzera
an kantatuko dute olatuak lasai
Ene Nortxu, bion maitasuna
otoitz-oiartzun beziñ goxo.

Letraren esanahia jatorrizkoak baino koherenteago eta oratuago lortua du nire ustez itzulpen-moldaketa honek. Metrika aldetik berriz ez du konparaziorik. Erdarazkoa zeharo zintzilik gelditzen da euskarazkoaren aldean eta kantatzerakoan berriz, zortzikoaren musika-kolpeak etenpuntu bihurtzen zaizkio erdarazko letzari. Euskarazkoan aldiz, musika-kolpeak oso ondo datozkio letzari, askoz ere sinalefa gutxiago ditu (erdarazkoa josita bait dago lotura horietaz) eta askoz ere kantagarriagoa da.


Mendizabal zenak ordurako ere bazituen olerki argitaratuak ("Beasain Jailetan" urtekarian etab.), baina itzulpen-moldaketa honetan ere bere idazle, oler-

kari eta bertso-idazle sena argi eta garbi azaldu zituen. Agian olerkari handi izan zitekeena, Herri honen egoerak hartarata goizegi galdu genuen, baina zalan-tzarik gabe, garai hartako Goierriko olerkari-ernamuinik bikainenetakoa izan genuen.

Andoni Sarriegi Eskisabel



Xabier Agirre: “Ikuslerik gabe, hutsik geratzen da gure mundua”



Xabier Agirre legorretar aktore gazteak “1990.eko Aktore Onena”ren Saria jaso berri du Azpeitiako Topaketetan “Jaques eta Nagusia” antzeslanean eginiko lan ederragatik. Handitzen denean, edo hazten denean, bere gustoko lanetik bizitzea nahiko luke “Xabier-txiki” goierritarrak. Bejondeiola!

Duela hilabete pare bat edo sortu zitzaigun Xabier Agirre aktorea elkarrizketatzeko grina eta, azkenean, berarekin geratu gara libre duen arratsalde gutxi horietako batean, bizpahiru garagardo dituen mahai baten inguruan.

Gaur egun dagoen krisia kontutan harturik, ze demontrek bultzatu zuen Xabier ogibide hau hautatzera? Ez derizkio aktore bat jaio egiten denik, ez, baina txiki-txikitatik ausart xamarra izana da eta Legorretako eta Ordiziako ikasleetan zebilela ere antzerki asuntuan eta horrelako saltsetan aritua.

Ondoren, erabakia hartzeko garaia iritsi zenean, ikasketak amaitzeko garaian, “antzerki mundu hau asko ezagutzen ez nuen, abentura bat bezala hartu nuen”, dio. Arte dramatikoak ikasteko grina areagotu egin zitzaion eta bere arreba Bartzelonatik zebilenez, hango Arte Dramatikoko Institutuan sartzea erabaki zuen. Tramiteak egiten ari zela, egunkarietatik jakin zuen Jaurilaritzak “Antzerti” sortzeko asmoa zuela.

Probetara joan, aukeratu zuten eta hasera-haseratik egun osorako bekaduna izateko zoria izan zuen. “Hasieratik abentura gisa hartu nuen, ez ogibide gi-

sa”, eta ogibide suertatzea ondorio bat izan dela uste du Agirretarrak. Bada gaur arte.

GOIERRITARRA.- “Antzerti”k kaleratu zuen lehen aktore promozioa zara, baina, zeintzu izan ziren bertan egindako lehen pauso eta lanak?

XABIER AGIRRE.- “Antzerti”n aurkitu nuen mundu berri hori, bertan zeuden lagunak ni baino dexentez helduagoak ziren, gutxienez 3-4 urte gehiago (18 urte nituen), eta bertako giroa zeharo arrotza zitzaidan, ezezaguna ikastaro gisa hartzen badugu, bertan ahotsa, gorputza, dantza, musika eta inprobisazioa lantzen bait ziren, hau da eszenak lantzea, bai inprobisazio bidez edo testu bat landuz. Hasera oso gogorra izan zen, Antzerkian inprobisazio hitzak zer esan nahi zuen ere ez bait nekien, eta oso gaizki igaro nuen, ezin da hitzez adierazi. Honekin esan nahi dut hasera gogorra izan zela eta ondorena inon kokatu ezin markatu zuela.

G.- Zer zioten zure etxekoek eta adiskidek antzerki-munduan hasi izanaz eta egoera berri horretaz?

X.A.- Tira, harritutako lehena neu izan nintzen, ez bait nuen ogibide posible bezala ikusten; abentura hartan murgildurik nengoela lagunak komentarioak egiten

zizkidaten eta egiten nuen lanari buruz hitzegiten nien. Garai hartan inork ez genuen uste ETB-tik lanik sortuko zitzaigunik. Etxean berriz antzerkitik bizitzerik ba ote zegoen galdetzen zidaten, baina beti funtzioaren bat edo beste ateratzen zen eta erdi mixerian biziz gaurko egoerara iritsi gara. Uste dut zerbait nahi duen guztik, eta nire burua zorionekotzat daukat, gustoko dudanean lanean ari naizelako, igaro beharrekoak diren momentu txarrak gainditzen jakin behar duela.

G.- ETB sortzeko zorian edo sortu berrian eta gerora ere ETB-n lana eginazara. Zer diozu?

X.A.- ETB-n emandako pausoa ideak argitzeko izan zen piskabat, bapatean bertako programa batzutan parte hartzeko aukera iritsi zitzaidan. Ondoren, 20 urte nituela, “Ez klip ez klop” aurkezteko aukera eta aurrera egin nuen, gauza ote nintzen galdetzen niola nire buruari. Orduko kritikak onak izan ziren eta oso pozik geratu nintzen eginarekin; beste abentura bat zen eta abenturak pozgarri izaten dira. Esperientzi gisa oso positibotzat hartzen dut.

G.- Aktore bezala hainbat lan eginazara, baina ba al duzu zure baitan gehien betetzen zaituen lanik?



X.A.- Beno, "Antzerti" eskolatik atera ondoren ez da izaten norberak nahi lukeen lan aukerarik, "Antzerti"n eginiko lanez gain, "Arlequino", "Troiarak" eta "Seis personajes en busca de un autor" Bederen 1-en eskolaz kanpo eginiko lehen antzeslana "Necrassov" izan zen; esperientzi hau ere nahiko gogorra izan zen, Bartzelonara joan beharrean aurkitu bait ginen montaiia egitera. Abiapuntu bezala "Necrassov" hartuta, nik lan egin dudana Antzerki konpainia bakarrak (Bederen 1-ek), garai hartan Donostiako Urrezko Danborra jaso berri zuen eta guztien ahotan zebilen Gabriel Celayaren "Erreleboa" lantzeko aukera eskeini zidan, Espainia guztian zehar kritika oso onekin antzestu genuen obra, montaiia ere ikuslegoarentzat oso gustokoa zen horietakoa suertatu zen. Ondorena "Gillermo Tellek triste ditu begiak" antzeslanaren bidetik atera zen, lan honekin aldiz ez genuen halako arrakasta haundirik izan. Joan den urtean berri, "Jaques eta Nagusia" lanarekin hasi ginen: nire lehen protagonista zen, nire iritziz protagonista eta biok egundoko antza dugu, niretzako oso ona izan da zuzendu gaituen Jordi Mesalles zuzendari kataluniarra gurekin lanean izatea. Testua eta inguruko giroa zoragarriak izan dira beti eta guzti hau kontutan izanik, ni, "Jacques eta Nagusia"n eginiko lanarekin geldituko nintzateke.

G.- Filmeetan ere lantxo batzuk eginak dituzu, horretaz ere zertxobait kontatu iguzu.

X.A.- Parte hartutako filmeen galdera hau ere abenturen zakuan sartuko nuke, nire filmeen inguruko abentura honi buruz ez dut asko esatekorik, nahiko laburra izan bait da, baina izan ditudan aukerak kontutan izanik antzerkia, telebista eta zinea mundu ezberdinak direla esan nezake. Nire barnean badut zinea egiteko irrika bat, gogo haundia bait dut beste mundu hori barrenagotik ezagutzeko, aukera baten zain nago. Aurten antzerkia izan da, baina gustatuko litzaidake zinema egiteko aukera bat ate joka etortzea.

G.- Mundu honen zailtasunak aipatu dituzu: Euskal Antzerkiak berak ba al du irtenbiderik? Talde asko, kalitatea ez dakit nolakoa...

X.A.- Geroz eta gazte jende gehiago ari da lanbide hau ogibide bezala hartzen,

bere ikasketen bidean unibertsitatea aurrez aurre dutenean antzerki bide honetatik jotzea hautatzen dute, eta arte dramatikoaren mundu honetara sartzean aktore/aktoreen mundu hau geroz eta konpetitiboagoa egiten dute. Pertsonalki eta talde batetako kide bezala konpetentzia, beti, onuragarria izaten dela uste dut, kalitatea hobetzera eramatzen bait du. Nire eritziz azken urte hauetan Euskal Antzerkiak aurrera pauso haundiak eman ditu, ez, ordea, Bartzelonako talde batzuekin konparatzeko adina, bertan inprobisazioa asko lantzen bait dute eta bere buruaz eta gizarteaz barre egiten bait dakite.

Bere buruari barre piskabat egingo balio bezala, "haunditzen naizenean edo hazten naizenean, nire gustoko den lan honetatik bizitzea atsegingo litzaidake, tar-teka-marteka antzerki saioak egitea, bai ETB-n edo beste telebista batetan lan batzuk izatea, zine mundua geroz eta sakonago ukitzea eta bizitzea eta abar, eta abar" diosku.

G.- Konta iguzu egi bihurtzea atsegingo litzazukeen amets bat?

X.A.- Begira Jexux, entzun ondo, pertsonalki edo lan aldetik begiratuta?, pertsonalki auskalo, denok nahi duguna, baina lan aldetik, ba beno, ez nuke esango Antonio Banderas bat izatea eta oso ezaguna izatea, baina tira, lana izatea eta jendeak Xabier Agirrek eta Bederen 1-ek zein lan politak egiten dituzten, zein profesionalak diren, "non daude datorren astean?", ikustera joan behar dugu" esatea, gure mundua ikuslerik gabe hutsik geratzen bait da eta gure giro eder hau zuen barrerara sartzen bada guretzako aurrerapauso haundi bat da.



G.- Elkarrizketa guztian zehar Bederen 1 aipatu duzu, zer da Bederen 1?

X.A.- "Antzerti"tik atera osteko nire lehen pausotik aukera bat eskeini zidan taldea Bederen 1 izan zen, haseran kontratatuta gisa aritu nintzen eta duela urte bete, zorionez, Bederen 1-en enpresario gisa sartzeko eta bertako partaide bat gehiago izateko aukera izan nuen. Bederen 1 sei aktorez osatutako talde bat da, guzti hau aurrera eramaten saiatzen garenak, momentu honetan "Jaques eta Nagusia"-rekin ari gara eta ondorena zer izango den ez dakigu, horretan burubelarrari lanean ari bagara ere.

Nahi duen antzezlan egiteko aukera izatekotan, "Shakespeareren Hamlet bat eskatuko nuke. Hori zure barrenean daukazu baina Hamlet bat ondo egiteko oraindik urte batzuk igaro beharko dute herriz herri eta plazaz plaza antzerkia eginez, esperientzia hartuz". Ez du esan Antonio Banderas izatea gustatuko ez litzaikeenik, baina ez du hori bere lanaren ondorio bezala ikusten. Gezur gutxi bota omen dizkigu. Harrapazak!

Jesus Mari Arrizabalaga
J.A.

IDIAZABALGO HERRITIK DATOR NOTIZIA: HASI ZAIZKIGULA EGITEN ANTZERKIA

“Bi Maria Udaberrian”, seriozki parregiteko

Lurdes Intxausti, 24 urte; Lierni Galarraga, 13; Irantzu Arrizabalaga, 13.

Idiazabalدارrak hirurak. Eta zer okurritu zaiela uste duzue?: bertako antzerkia piztea, komeria bat sortuz eta antzeztuz. Duintasunez eginez, azkenaldi honetan ausartu diren lehen teatrero goierritarrak ditugu.

Halaxe da: gure basamortu honetako oasian bilaka daitezke. Maila bat ematen duen antzezlan paratu bait digute. “Bi Maria Udaberrian”, bera da osorik bitxikeria. 45 minututako lan kontsideragarria, ez ri-ra egiten den gauza!

Joakiña eta Joxepa ditu protagonista irri-garriak. Bakoitzak bere familia aurrera ateratzeko badu nahiko lan. Baina badute tartean denbora apur bat elkarri hainbat gorabehera kontatu eta txutxumutxuan edo mokoka aritzeko, hain gure den hizkera xelebrean. Dendaria bata, etxekoandrea bestea, ordubete inguru eder pasarazten dute. Espazioaren faltagatik ez baltz, aldizkarira gidoiaren edozein zati ekartzeak mereziko luke.

Zuzendaria den Lurdesek, Antzerti Eskolan ikasi zituen mundutxo horri buruzkoak, Magisteritzako ikasketekin urtebete behinepein konpajinatu zituela; iaz, praktikak Idiazabalen egiten zituen; Herri-eskolakoek beren saiotoxoak prestatzen dituzte Gabonetarako, Goierriin beste askok legez; Lierni eta Irantzu, “beti biok batera ibiltzen ginen eta beti adarra-joz eta hola”: minutu batzutako antzerkitxo bat bururatu zaie; Lurdesek hura irakurri zuenean eta nesken bertuteak ikustean (nahiz eta obrarik zuzentzea



sekula pentsatu gabeko gauza izan), eskola mundua eta antzerkia erlazionatzea gauza ona izango zela pentsatu zuen: “Kontxo, hortik sortu daiteke obra polit bat!”.

Planteatzea eta gogoz ekitea, egitea, bat izan zen dena. Irantzu (Joakiña) eta Lierni (Joxepa), bi egunetan egin zuten. Bietako baten amak esan izan die: hainbeste entsaiatzetik ahaztu ere egingo zaiela. Bada ez, estreñoa ikaragarria izan zen nonbait eta herritarrak harriturik utzi zituzten. Eskolaz kanpo, Idiazabalgo iazko maiatzeko Kultur Asterako prantatu dute: eskuak hautsi beharrean txalotu zitzairen. Hurrenez hurren, Ordiziako Gaztetxean, Zegaman, Beasainen eta Lazkaoako Maizpideko Kultur Hamabostaldian harrera ezin hobea izan dute jendeen partetik.

Lehen ere bazen antzerkizaleetasunik Idiazabalen, Goierriko beste herri zenbaitetan bezala, ahaztuxea ia. “Izar, ilar-

gi, ipuin, mirari” delakoarekin ipuin kontalari gisa ere badabilen Lurdesek dioenez, “orain gu hasi gara eta kosta egiten zaigu, berez dedikazio asko eskatzen duen lana delako, ondo ateratzez gerotan. Eta behin hasiz gero, gustozkoa egin nahi dugu. Badute arrazoirik gustora egoteko. Azkenaldian Goierriko herri batetik ateratzen diren lehen komeriantek bait ditugu. Haztegiak, Idiazabalgo kulturarako giro eta sentsibiltateak ere izango du zer ikusirik. “Ama begira zazu” ikuskizuna ikusia zuten eta nahiz eta ildo horretatik doan obra, ez da atzo goizeko joera honakoa euskal teatrogintzan.

Kontutan hartu beharrekoa da gidoia neskatzok asmatutakoa dela. “Gauza bat dute ona gainera: inprobisatzeko gaitasun eta ahalmena handia eta hori aprobetxatu egin behar da”. Testua abiapuntuz harturik, belarri eta mingainak luzatuz, hara ekarpena. Etxean edota inguruan edukiko baitituzte pertsonaien antzeko piezak! Etxekoandretxo biren kontuak etxeko,

edota hobe tendako euskararen ematen dira, gertutasun horren bila joan baitira.

Ez da berdina aktoretzan, beste batzuk gidatutako konpainia batean sartzea eta norbera obra xume baina erakargarria gidatzen jartzea. "Kanpotik ikusita baino zailagoak dira gauzak barrutik", magia munduaren antzeratsu. Talde batean sartu eta aritzea oso gogorra iruditzen zaio Lurdesi, "baina horrela, hobby modura, bapo. Noski, behin mundu horretan sarturik egonez gero ezagutzen duzu zuzendari baten lana eta bere lekuan jartzen zara". Horrez gain, zortea izan du aktoreekin: "behar bada, ezagutzen ditudalako bi alproja hauek; hauekin ez da prolemarik".



batean aztertu asmoz eszenariora igoarazi zutenean.

Kasualitatea. Kasualitatea izan zen bezala (ez baitira batere auto-promozionatu) herrirako eginiko obra kanporatzea. Hernanira ere iritsiko omen direla oraingoan. ETBra bidalitako bideoak ez du erantzunik jaso orain artean eta kezkatuturik dabilta.

Hiruko taldea oso etxekoa da, etxerako egin dutenak, ez dute izenik oraindik ("Bi Maria t'erdia" diote parrez) baina bada beste kasualidaderik. "Gure GOIERRI-TARRAren 11.eko Xabier Mendigurenen "Oraindio bizirik hago, Fernando"ri buruzko kritika irakurri nuen. Obra berri baten bila gabiltzanez eta ausartu garenez kanpora irtetzeraz, e.a., bada, irakurri hi-

rurok, Mendigurenekin komentatu eta uste dugu lanean hasteko moduan izango garela". Akaso aipatutako obra antzeztuko dute "Bi Maria Udaberrian"-en ondotik, aktore borondatetsuren bat gehiago balego.

Kamerinoan lorarik izango duten ametsik gabe, laguntza piska bat eskatzen diote jendeari. Animatu ditzazuela, akuitatu, afizioz egiten baitute egiten dutena. Antzezpene berri baten aurrean mogitzen dira bai (gutxieneko astean behingo entsaioa), eta gauzak ondo badoaz, badugu Goierriko teatro talde estable-xamar bat. **Kontaktoa: 801348-801221.**

Mikel Aramendi

Automobilaren errekanbio elektrikoak



GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI-ESKER

Joxe Madariaga: “Besterik gabe, hemendik, Lazkaotik...”

Hementxe dugu berriro gure lagun zaharra den Joxe Madariaga lazkaotarra. Ez dugu batere berdea adinez, baina bai berdezalea. Istorio eta traste zaharrez gain, txiste berdeak atsegin zaizkiola, alegia. Baita guri ere!

Erdi-elbarriturik dago Joxe eskubiko eskutik, tronbosiak jo baitzuen orain dela urte eta piku, baina badu pentsatzeko denbora eta, hizpidea emanda, karta luze bat egin digu (akats bateren edo besteren gorabehera), GOIERRITARRAren irakurlearen gozamenerako.

Gerrako komeriak

“Beno, hementxe duzue zuen ezagun bat, zerbait azaldu nahian, eta da Joxe Madariaga Elizegi, Lazkaomendiko Maiz- Aundin jaioa, otsailaren hamazazpian, urtea 1915.a. Hantxe bizi izandu zen hogeitabat urte bete bitartean.

Orduan sortu zen gerra zibila eta joan behar izan genuen hotsegin ziguten lekura. Eraman gintuzten Donostiara; handik destinatu gintuzten Bitorira, “Regimiento Flandes”. Hogeiren bat egunetan ibili ginen istruksioa ikasten bertan. Gero, eramán gintuzten Villarreal de Alavara. Hori zen aurreneko irteera, 36ko negua hortxe pasa genuen: Bitoritik Villarreal eta Villarrealdik Bitorira.

Martxoaren hogeitamaikan, Albertia mendia hartu genuen; aurrera segitu genuen gero, Otxandiarra; handik Gorbea txikira; hurrena herri txiki batean sartu ginen; handik eramán gintuzten San Antoniora. Haren aurrean badago mendiska bat, Sebigain: guk hartu genuen eta hurrengo egunean etsaiek kendu egin ziguten. Biharamunean, atzera berriz guk. Mendi hartan odol asko isuri zen, horregatik dago orain gurutze handi bat bertan. Berrogei egun pasatu genituen Urkiolan, maiatzaren hogeitabian sartzeko Barazartikan Dimara. Hurrena Iurre; handik aurrera herri asko igaro eta joan ginen Balmasedaraino. Azkenik Bitorira.

Hemen denboralditxo bat egin genuen eta hurrengo saltoa zen Barruelo-Palenzia. Picos de Europa barrera eramán gintuzten Madrila. Han ziren komeriak!, latzak eta txarrak! Uztailaren hemezortzian genuen lehenengo abantzea, baina

erretiratu egin ginen. Hilaren hogeitalau garrena, Santiago bezpera, egun gogoangarria: goizeko zazpitan jo ziguten txilibitua, saltatu gintuzten trintxerak: han zen bala-hotsa! Guda guztian igaro genuen egunik grabeena bai. Atera ginen “dibisio” osoa, hamasei konpainia izango ziren bai eta gure konpainian egongo ziren, ziur ez dakit baina, hirurogeitamar bat lagun. Hori goizean zen eta iluntzean juntatu ginen hamazazpi. Proporzioan, hildakoak gehiago ziren zaurituak baino. Hori gure konpainian eta gu bezala beste gaineratikoetan ere, izan ere, gu bota orduan Francok eta Alonso Vegak, usoak kajoitik botatzen diren bezala. Egund negargarria hura!

Handik, berriz ere, ekarri gintuzten Palentziako Barruelora. Handik, ekin genion Reinosatik barrena, Santander hartu eta Asturias aldera. Lehenengo herria Llanes da, bigarren Barro. Hantxen eman zidaten aurreneko tiroa iztarrean eta eramán ninduten Baldecillasko ospitalera. Hamar egun han pasa eta hala sendatu nintzen. Gerora, hurrena, Gijonen sartu nintzen lehengo konpainia berean. Ez nintzen sekula aldatu konpainia batetik bestera.

Hortik aurrera hor ibili ginen, Teruelen-eta. Han ere izan genituen bai, moduko bala-zipriztinak eta hotzak, izugarriko hotzak! Ibili ginen baita ere Castellon aldean: Vinaroz, Benicarlo, Benicasim eta abar; oso leku ederrak dira horiek. Piska batera Ebrora eramán gintuzten. Sierra de Pandolsen izan genituen borroka handiak. Odol asko isuri zen mendi hartan, abuztuaren hamabostean hantxen eman zidaten bigarren tiroa hankan. Bertatik ikusten zen Tortosa, herri handia ematen zuen zela. Ebro ibaia jaiotzen da Reinosan; itsasora sartzen da Tortosan. Hau dakienik asko dago, baina, bai al dakizue nola den erreka horren hasiera? Esaera zaharrak dioenez behintzat, hori dela izango dira milaka urte batzuk, bada



Reinosako kalean juntatu omen zirela hiru neska eta hala da esaera,

*Reinosako kalean egin dute hiru neskak pixe
Hantxen formatu dute
Ebroko ibaixe*

Bada, tiro horren zauria sendatu zitzaidan hamarren bat egunetan, baina berriz ere joan nintzen Ebrora eta ailegatuta hirugarren egunean berriro zauritu naute. Hau larria zen, “Lafite” esku-bonbak eragina. Hor bukatu zen nere gerra. Urte bete egin behar izan nuen Ospitalean. Hiru aldiz operatu ninduten metraila puska ateratzeko. Diodana 1938ko urriaren aurrera samarrean izango zen eta 39.ean lizentziatu, hainbeste alditan zauritu eta genuen alimentuekin hainbeste odol galdua gero, etxera ekarri genuen bai guk indar pranko!

41.ean enplegatu nintzen Udaletxean aguazil eta alondigero eta nere eginkizuna zen, ura kobratzeaz gainera kontadoreak leitzea. Uda partean ibiltzen ginen urarekin oso eskas. Behin batean suertatu zitzaidan kaso kurioa. Banindoan Mieleneko zubian gora eta sobrare ura mozturik neukan eta iturrian ari ziren ura hartzen emakumezko batzuk. Erdaldunak ziren eta ikusi nindutenean hasi ziren emakume horiek buila batean esanez, “Mira, ahi viene Joxe. Si, ese corta y da el agua cuando quiere, ese hace lo que quiere”. Eta nik handixe neukan pasatu beharra. Bildurrez baino pasatu nintzen, eta harakina, Alejandro-txiki zegoen atean eta esan zidan: “Joxe, Joxe, eguraldi txarra daukak hor motell!”. Baietz, halaxe zela, baina gero nik alde egin nion eta eurak haserretu ziren. Batek esan zion besteari: “Tu, tu eres puta”. Eta besteak erantzun: “Entonces, que vas a ser tu sola o que?” eta han ikusiko zenitun “de puta a zapatazo”!

Guk Franco oso gizon ona genuen (bazuentzako behintzat). Hark komandante edo kargu handi-xamarra zeukanari (guk herri bat edo mendi bat hartzen bagenuen), jauntxoari, izar bat gehiago jartzen zion eta gu soldadu raso ginen hasiera batean eta gero lizentziatu ginenean, orduan ere igoal. Baina eman zidaten "La Cruz", "Medalla al sufrimiento" alegia, diarioarekin gainera, eta badakizu ze pasa zen? Bada zen hamabi pezeteta eta errealtbi. Hori zen hileko soldada. Orain ematen digute zer edo zer gehixeago. Horrezaz gain eman zidaten kondekorazio bat. Hau dirurik gabe, baino.

Gerra bukatu eta ondorengo urtea zen. Franco Madrilén zegoen eta pentsatu du egun batzuk pasatzera Bartzelonara joatea. Hala, joan omen zen, hiru eguneko permisua izan behar zuen. Hala, goizero joaten omen zen kapila batera goizeko otoitzak errezatzera. Hala, aurreneko egunean egin omen zuen bere otoitza eta Santuak esan omen zion: "Que suerte tienes!". Hala, Franco oso pozik, erabat enamoratuta. Hala, bigarren egunean joan da eta egin ditu bere otoitzak eta hasi da irtetzen eta Santuak: "Que suerte tienes hoy!". Francok Carmentxori esan dio: "No sabes lo que me pasa: el Santo me habla". Eta emazteak: "Y no le has dicho nada?". Bada baietz, galde egin ziola zergatik zuen zortea. Eta hirugarren Santua Jesukristo zela: "Que suerte tienes!" "Y eso?" "Porque tengo los pies atados, si no te daría una patada en los cojones!"

Beste egun batean, Carmentxo, Francoren emaztea, joan zen Madriletik Bartzelonara. Bazihoazen Fragatik aurrera. Hurrengo herria herri txiki bat da, izena du Bragas, eta horruntza ailegatu zirenean automobila aberiatu zaie eta txoferrak bilatu dio motorren pieza bat hausita eta esan dio "señorari" ezin dutela jarraitu, garajera eraman behar duela autoa. Ez apuratzeko, mutiko, berak deituko ziola Pantxikori eta hark kotxea bidaliko zuela. Deitu dio eta "Pues en este momento no hay ningún coche libre. Donde estas pues?". "Estoy en Bragas y sin combinación". "Pues entonces, el primero que venga que te monte!".

Gu Teruelera joan ginenean, gelditu arazi gintuzten Arizan. Hemendik Teruelera berrogei kilometro daude. Jarri ginen estazio ondoan zegoen biltegi batean, baina estu samar geunden hor. Gero esan ziguten bazegoela beste borda bat hutsik baina garbitu egin behar zela. Hala joan ginen hamabosten bat soldadu, enkargatu bezala genuela brigada bat eta brigada hori zen oso lodia, gizona. Bagindozen eta bestaldetik zetorren "mañica" bat, neska-alta-polit-bat. Eta brigada hori hasi zitzaion piropoak, loreak botatzen: "Vaya niña mas hermosa / quien pudiera echar una dormida con ella". Eta neskatxak erantzun: "Cacho cerdo, eso harías tu: dormir!". Etzion kontestatu Brigadak!



Behin batean, hau Zaldibian gertatua da, neska-mutil bikote bat nobioak omen ziren eta egun batean mutilak neska gonbidatu du Aralar mendira egun pasa. Maiatzaren hasiera omen zen eta Alotzatik buelta egin dute. Baita xixa mordoska bildu ere. Jeitsi dira Oidui aldera, eta behor sail bat omen zebilen han; kamaizaia ere, paradako zaldia han omen zebilen, bati salto eta geroxeago besteari. Orduan neskatxak mutilari: "Horiek animaliak dira eta nola antzematen diote elkarri jolaserako gura daukatela?". "Ba, oso erraz, usainetik". "A, orduan zuk ez duzu usainik hartzen, zuk katarroa edukiko duzu!". Behorak ikusiarekin ez zegoen konforme, bera egon pil-pil! (...)

(jarraituko du: puska baterako baditugu!)

RAIMON MUSIKAL

JAMO PROFESIONALA
BANATZAILE OFIZIALA
Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURETA, z/g.
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

MUJIK A AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 BEASAIN

BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

“BERTSOTARAKO AL ZAUDE, JEXUX?”


Bertsoak eta bertsoak

Askoren ustez, bertsoak eta bertsojartzalleok moldatzen ditugun bertsoak, alaiak eta irripartsuak izan bear dute. Bromatan ari nintzaiola, onela esan zidan batek orain dala ez asko: “Bertsotarako al zaude?”.

Eta ez da ala. Bertsolari batek, bat batean, kanta lezazke parra sortzen duten bertsoak eta baitare biotzeraño arantz mintua sartzen dutenak. Ikusi, bestela, Xalbador zanak, gaia emanda, bere emazte zanaren soñekoari abestu zizkionak.

Orrelako kasu geiago ere konta genezazke. Ainbat eta ainbat entzuteko aukera izan degu! Bertsojartzalleekin ere, berdin gertatzen da. Nik neuk, eta beste askok ere ala egin izan dute, paperean jarri izan ditugu bertso alaiak eta baitare trixteak.

Gure adiskide jator eta zintzoa dan Xebastian Salaberria-ri, aurtengo ilbeltzean, bere alaba Lurdes il zitzaion (G.B) eta bere aitak, samiñez beterik, “Gure alaba zanari” jarri dizkio. Xebastian-ek bidalitako papera eskuetan daukagu. Ara zer dion.



1

Ilbeltz illaren ogei ta seia
egun gogoangarria
biotz mindurik dagon batentzat
ez da izan pozgarria.
Gure etxean gertatu baita
ezbear negargarria
Lurdes maitea iritsi zaizu
eriotz ordu larria
bertsoen bidez eman nai nuke
alabaren il berria.

3

Usai gozoa duan arrosak
arantzak ere baditu
iru urte ta erdi pasean
ez dezu gutxi sufritu.
Gaubean miñez oeratuta
goizean miñez zutitu
sendagilleak bere aldetik
alegiñak egin ditu
eriotzako azken agurrak
danok naigabetu gaitu.

5

Ain da gogorra gertatu dana
nago ezin sinisturik
iñolaz ere ezin det kendu
nere barrengo tristurik.
Aldegun dana egin diogu
gaixoaz errukiturik
gaur ez daukagu gelan beretzat
ezertxo ere uzterik
begietatik ixurtzen diran
negar malkoak besterik.

2

Mundu ontako zure bizitza
nola izan dan ain motza
zorionaren ordezt etorri
zaizu Lurdes eriotza.
Zure adiñik ederrenean
gelditu zera illotza
minborea da zulatzen gaitun
ain eztenkada zorrotza
zauriturikan utzi duana
betiko gure biotza.

4

Zer utsunea gelditu zaigun
ezin det burutik kendu
len triste bizi bagiñan ere
ara erabat samindu.
Negar zotiñez esaten zidan:
“Aita nereak egin du”,
Gurutze Santuari begira
azken arnasa eman du
ainbat sufritu arazi dion
minbiziak eraman du.

6

Azken agurra egin diguzu
aingeru baten moduan
baiña arnasik dedan artean
izango zaitut goguan.
Ta opa dizut Jainko altsuak
(/9 artu zaitzala zeruan
neronek ere auxe eskatu
nai nuke azken orduan
emen bezela izan gaitezen
Lurdes alkarren onduan.

(Sebastian Salaberria, Ernani, 1991).

*Ikusiko dezun bezela, irakurle, aita ba-
tek bere samiña bertsotan agertzen du.
Beraz, bertsoak beti ez dira bromazkoak
izaten.*

Ibai-Ertz

Lazkao Txiki ezaguna da, noski, Goierri eta Euskalerrri osoan. Paregabeko bertso asko abestu ditu, inork espero ez duen arrazoi politik eskaintzen eta batez ere bertsoa sakontzen lan haundia egin duen bertsolaria bait da Joxe Migel.

GOIERRITARRAko eskatu (Goierriko beste bertsolari askori beza-la, bestalde), eta jartzen ez dituen, bada, hemen azaldu nahi nituzke bere bi bertso, bat bapatean abestua eta bestea jarria.

Biak ere nahiko garbi erakusten dute bertso errazean geratu izan nahi ez duen bertsolari baten karisma. Lehenengoa txapelketa batekoa da; gaia honako hau zuen: "Ilargira joan den lehenengo astronauta zara", eta hiru bertso bota behar izan zituen gai honi buruz. Lehenengo

biak ez zituen txarrak botako, baina, askotan bezala, bota zuen batek jaso zuen jendearen txalo zaparrada beroena. Entzuteko modukoa zen, honatx:

Baliteke haruntza
ni joatea aurten,
nola lehendabizikoz
bidali nahi nauten;
jendea honezkero
ari da esaten,
euskaldun bat joatea
txarra ez da izaten
han daudenak euskeraz
ikasi dezaten.

Bere hurrengo bigarren bertso hau, esan bezala, idatzia da; berak askotan abestu du egileak bakarrik jarri diezaiokeen sentimentua erakutsiz, izan ere

bertsoa idaztearen arrazoia ez da gutxiagorako ere. Idurre izena zuen haur bat ezagutu zuen nonbait Joxe Migelek, bai berarekin hitz egin eta bai eta jolastu ere. Handik egun batzutara haur honen gurasoek eman zioten Idurre hil zenaren berri tristea. Lazkao Txiki hauraren rekordatoriorako idatzia da bertso eder hau:

Idurretxo ahaztu ezin,
zu zintugun poz atsegin
gu hemen utzi negarrez eta
zertara joan zera urrin.
Ile hori begi urdin
zeru sapaia berdin,
orain Idurre jostatzen zabiltz
zeruan aingeruekin.

Xabier Nabarte

Ez dut galdu esperantza

Ba ditut egunero
milaka zalantza,
bainan sekulan ez dut
galdu esperantza.

Iritsiko zaiola
Euskalerriri
denok espero dugun
egun berri hori.

Langileak lanean
nausiak bakantza,
bainan sekulan ez dut
galdu esperantza.

Lurreko ondasunak
egunen batetan
ez direla egongo
esku berdinetan.

Herria lutoz dago,
ez jaia, ez dantza,
bainan sekulan ez dut
galdu esperantza.

Heriotza, kateak,
biak apurtuta
dantzatuko dugula
zazpiak batuta.

Morroiak nausiari
zor dio gorantza,
bainan sekulan ez dut
galdu esperantza.

Batak eta besteak
berdin izateko,
nausia morroiari
belaunikatzeko.

Euskaldunon etxean
nausi da arrotza,
bainan sekulan ez dut
galdu esperantza.

Bakoitza bere etxean
nausi izateko
eta auzokoari
bakean uzteko.

Iokin eta Iosu

Nire Herria bezala

Nire Herria bezala
nahia ba dut,
aterik ez;
nire Herria bezala
orro dagit
atsekabez.

Nahi handi hau
zezen bat dut
egarri baten
moskorrez.

Euskalerriren
entzierroa
luzatzen doa
kale luzez.

B.Gandiaga-Iokin eta Iosu.

Gizonen pausoak

Gizonen pausoak itsasora
dihozten urak dira...
bizitzaren gurrupilak garamaz
ilunpetako hobira,
argia gautzen eta bizia
finitzen den ur haundira.

Egun-xintak gaua dakar,
biziaren gau gordina!
Bainan heriotz guziak
ez dute esan nahi berdina.

Goiz-ihintzak sortutako lorea
arratsean hiltzeaz dago...
Hala, gu ere herio-segak
denok gaitu eramango...
Bainan heriotz batzuk ditugu
besteak baino pisuago.

Herri-interesengatik hiltzeak
mendien pisua dauka
bainan fazisten morroi bizi ta
zapaltzailentzat hiltzea
xorinoen luma grisa baino
pisu gutxiagokoa da.

Ideal gabe morroi hiltzeak
ez du deus ere balio...
Herriagatik hil denak aldiz
bizitzari argi dagio...
Ur guziak ez dira guziak,
herio denak ez herio.

Eustakio Mendizabal

- * ETXEBIZITZAK SALGA: ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M2.
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA, BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOKITURIK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO



auto-eskola ORDIZIA

LA UNION Y EL FENIX ASEGURORAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76


ORDIZIA



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

EROSKI KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA



LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretzea - Beirategiak - Orma-ispiluak

ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70

BEASAIN

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak

gaur
express

mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38
88 83 17

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO



Nor zen Tomas "Motza"

Tomas "Motza", bere garaian Zeraingo gizonik ospetsuenetakoa zen. Bere izena Tomas Telleria zen arren, gehienek "Motza" gaitzizenez ezagutzen zuten.

Herritarrek gizon ospetsu bat ikusten zuten beregan eta gainera herriko ezagurri denak berekin zituen: alaia eta gizon arrunta eta baita besteekikoa egiten saiatzen zena.

Zeraindarra izan arren, ospetsua zen baita Mutiloan ere, minetan lana egiten baitzuen.

Tomas "Motza"k Argentinan bete zituen poltsikoak txanpenez eta, dirudieenez, ondo bete ere; baino hiri haundiak ez ziren berarentzat egiten eta bere herrira itzuli zen.

Zeraina iritsi zenean ez zuen garai haietako "amerikano"ak bezala bizi nahi, herritar bat gehiago bezala baizik eta horrela denei adierazteko, egun batean berrogeitamarreko eta hogeitabosteko dirupaperak erretzen hasi zen.

Esaten zen tabakoa berrogeitamarreko dirupaperean biltzen zuela eta hogeitabostekoaz piztu.

Argentinan beste asko bezala bere zaldiaekin garraioak egiten zituen eta ostatuetatik pasatzean ura hartzen zuen bere zaldiarentzat, baina, beste askok ez bezala, berak dirutxoren bat ematen zion ostalariari eta horrela urari ordaina jarri zion gizona bezala ezagutu zen aurrerantzean, ostalariak ordaina eskatzen baitzieten berari ez beste guztiei.

Bere inguruan bada esaera pranko, hala nola egun batean ba omen zetorren bere gurdiaekin eskuan farola zekarrela Mutiloatik Zeraina; mikeleteek "alto!" eman ziotenean gurdian farolik ez zekarrela esanez, berak honela erantzun: "Nola eramango diat ba farola gurdian, eskuan zekarkiat eta...!". Dena den, Tomas Motza gizon patxarosoak bezala ezagutzen zen, eta juerga-zalea, beti bere pipa ez-

painean zuela argazkian azaltzen den bezala.

Gaurko egunean Tomas Motza bezalako bizizalerik ez da gure inguruan.

Aldapa-gain

Peio Irizar: "musikagalomanoa"

58.ekoen kidekoa dugu Peio Irizar, beasaingar betiko familia ezagun batekoa. Aita bera Loinaz Koraleko zuzendaria izana urte askotan, musika zaletasuna errotua dutenak izan dira Irizardar hauek.

Zikloturismoa egiten ari zela, zoritxarreko istripu bat zela medio desagertu zen Martin, Peioren anaia gazteena, kolaboratzaile sutsua berau. Ikasi "Txanbo" zenaekin ikasi zituzten musikaren lehen errudimentuak. Martin eta biak aurrena txistua eta dultzaina joaz ibili ziren beren kasa; bai eta hainbat txaranga ezagunetan, hamaika baino gehiagotan eta bereziki Beasaingo "Koskola"n.

16 urte zituenek geroztik iaz arte musika-klaseak eman ditu Beasaín, Ormaiztegui, Donosti, e.a.-etan. Berbenetan eta bestetan ere jole aritu izan da halaber Peio. "Mandaeuli" musika taldearen azken garaietan ibilia, hortik bakarka atera zen Amaia Kasasolari lagunduz aritu zen Peio duela dozenaldi bat urte. Mikel Herzog, "Ancha es Castilla" eta ahazten duen besteren batekin noizbehinkako kolaborazioak egin izan ditu. Hurrena ETB 2-ko "Cuarto Creciente" eta "Noche de Ronda" programetan pianoa jo, laukote bat prestatu, musika-interbentzioak zuzendu eta burutu eta arregluak egin da Jon Urdangarin lazkaotarrarekin batera, soinu efektu espezialak eta beste egiteaz gain.

Orain bertan sintonien konposatze-lanetan buru-belarri sarturik dabil Juanan Ros beasaingarrarekin elkarlanean, hala nola, Mariano Ferrer-en "Sin permiso", "Kalejira" eta zenbait telebistako lehiaketetarako. "Koskola"n aritzeaz gain, Benito Lertxundiren taldean ordezkatze lanak, erreleboak betetzen ditu eta bi diskotan parte hartu du: bata Olatz Zugastirenean eta Jaione Escudero eta Zarauzko Umeen abesbatzarekin bestea.

Umeentzako bideo didaktikoak eta kon-tuen kasete mordo baten konposaketa musikala eta instrumentazioaren arduradun... Kurrikulum luzea duela dagoeneko, alegia, eta saltsa guztietarako perrexila dela esan dezakegu 32 urte dituen Irizar.

Ea noiz animatzen den Peio (seguraski ahazturik edukiko ez duen) bere bakarkako disko hori egitera!

M. Aramendi



Klaudio Otaegiri omenaldi

Nahiz eta bere heriotzaren mendeurrena iaz bete, jaioterria zuen Zegamako herriak duela ez asko antolatu du Klaudio Otaegi itzultzaile, euskaltzale eta olerkari (eskasa) izan zenaren omenezko ekitaldia. Dirudieenez, bat hil egin behar da omenaldi egin diezaion Zegamako Udalak. GOIERRITARRAK xentimurik ez du jaso bertatik; Joxe Azurmendi, Alustiza ahizpak, Iñaxita Ormazabal... ez gara inor. Hil-geroztiko zenbait omenaldi, esker txarreko.

Euskal Literaturaren analetan azaltzen ez den bat, Iztuetaren pare bailitzan, "Olerkari ospetsu" bezala saldu nahi izan digu Zegamako Udalak.

Klaudio Otaegi 1836. urteko urriaren 3an jaio zen Zegaman. Mutil gazte bizkorra, hamalau urtez organista oposizioak irabazi zituen bertako parrokiari. Hemezortzi urte bete eta laister, 1854ean Gasteiza joan zen maisu ikasketak egitera. Hogeitabi urte zituela, Hondarribiko eskolan hasi zen maisu eta umeei euskara irakatsi zien. Hainbat lan itzuli zituen (Bibliako hainbat pasarte, esate baterako) eta Louis Lucien Bonaparteren dialektologia ikerketako laguntzailea izan zen (bere koinata printze frantziarrarekin ezkondu zen "in articulo mortis"), gipuzkerara eta goi nafarreraren azterketan, batez ere. Hondarribian hil zen 1890. urteko urtarilaren 10ean. Gipuzkoan, eta batez ere Donostian "Bilintx"en inguruan ernaturiko mugimendu euskaltzalean ihardun zuen eta Manterola, Soroa, Artola, Iraola edota Barojarekin batera literaturarekiko zaletasuna barreiatu. Bertso lehiaketan epaimahaikide eta Kanpionekin batera, ainbat lore-jokoren antolatzaile izanak, poesia alorra ere jorratu zuen.


J.O.

Bada zer ezaguturik Aralarren

Txindoki, San Migel eta Igaratzaz gain, badira Aralarren beste hainbat paraje ikusgarri. Bizkarrean kanpaina denda generamala, bertara abiatu ginen udazken egun bero batez. Larraitzetik irtenda, Oña-Iturri pasatu bezain laister, Alotzako zelaietan aurrera egin eta bertako belardi berdeetan egin genuen lehen mokaua. Zerbait jatea aitzaki, puntu horretatik mires daitekeen paisaiaren gozatzea zen gure benetako asmoa.

Bertatik, Goierri osoa aurrean, Ganbo-Txiki eta Ganboko tontorreruntz abiatu ginen, zeintzuk burutu ondoren, Igaratzakoaterperako bideaerakutsi bait ziguten. Igaratzan azkenik, denda jarri eta ederki asko irabazitako atsedean hartzeari lotu gintzaizkion. Goiza iristean, zuhaitzak hostoak botatzen ari diren garaiko koloreek apaindurik, aterpe parean dagoen basoan bueltatxo eman eta Doniturrieta ez-kerraldeko bidea hartuta Enerioko txaboletara ailegatu ginen. Eta handik, arin arin, Lareoko urputzura bideratu. Askontzako ezezagunak dira Aralarreko paraje hauek. Horrexegatik, seguraski, oraindio leku paketsu eta bakartiak dira.

Mendigoxale





Kontu kantari

"Goiburua eta Iraola Kantu Kontari". Zenbaiten artean. Gipuzkoa Donostia Kutxa. 171 or. 300.

Liburu mardul, eder, eskuraerraza eta bertsozaleontzat merke- antxean salgai jarria honakoa. 91. go Bertsolari Eguna inguruan atera zen, bertsolari goierritar bion omenaldi inguruan; eta zer omenaldi bikainagorik egin liteke bertsolari bati, ezipada bere ibilerak eta lanak ezagutaraztea baino?

Bi gizon, eta, kasu honetan bi bertsolari hauen berri jakin nahi duenak badu non aserik bere gosea. Patxi Iraola eta Florentino Goiburua, ia beti batera ibili diren bertsolariak, ditugu idatz lanaren protagonista nagusiak, beren bizitzako pasarte eta bertsoak kontatzen dituztela lehen pertsonan. Eta kontatzen dutenetik alde handirik gabe jaso zaizkie beren testigantzak, itxura guztien arabera. Beren xarma guztia erekin, konplikaziorik gabeko kontakizunak, euskara erraz eta aberatsean aldi berean.

Iraolaren atalean, bere gertuko ibileren berri ematen digu: bere ama bezain buru onekoa, zaldibitar bertsolarien atzetik orpo-orpo, (geraondoko garaietara atzera egiten duela, makina bat kontaketa badi-tu), oso gazterik hasi zen bertso- munduan, hortik ez da atera geroztik.

Goiburua idiazabaldarrak ere paseak ditu zenbait gora-behera: artzaintzan Urbian, han eta hemen, fabrika eta azkenean baserria. Baina ez du ahaztu orratio bere hasieratako bertso izpirik ere. Goierriko

Bertsolari taldeak dioskunez, gainera, ba omen du Florentinok garai bateko ditxolarien senik asko.

Txukun horniturik dator liburu hau, nahiz eta "korrika eta presaka" egin bide zuten ia anonimatuan geratu diren egileak. Baina, esanak esan, hor dago emaitza, premiazkoa zen, bere helburua bete du eta hor geratzen da gerorako ere.

J.M. Mendizabal

"Nere mundualdia"

Bartolo Aierbe. Etor argitaletxea. "Auspoa"ren 195.a, 189 orri, 800 pzt.


Prentsako izkribuetatik da ezaguna Joxe Aierbe. Haren aita, berriz, 80 urte pasatxoekin oroitzapen liburu batekin etorri zitzaigulako 88.ean. Adin horretako gizaseme honek badu zer kontaturik, haurtzaroko bizimodutik hasi eta munduaz duen iritzietara.

Gaintzan jaio zen eta soldadutza ondoren Donostia aldera ezkondu, beti baserri inguruan. Karobiak eta karea egiteak, ardiak ematen dituzten lanak, ikazkintzak eta garai hartako ohizko lanak ezagutu zituen eta ezagutarazten dizkigu bertan.

Egilearen ezagunentzat berealdiko balioa izango duen arren, ezer gutxi esan digu guri liburu honek. Baina, ahula izanda ere, badauzka azken atalean garai batean Goierriin gertatu omen ziren pasadizoak. Gehienak, gure ustez, "herri-literaturari" dagozkionak. Badakartza halaber bere aitak San Mieli ateratako bertso batzu, eta sobrare gainera Abaltziketako plazan bertso-paperetan salduak izan zirenak. Kontatzen du era berean, bere baserrian jarri zutela lehenengoz elektra-indarra inguru hauetan, eta nola abarkak "gurpilekin" egiten zituen.

Bartolo Aierbek izugarritako erretolika darabil fede- kontuekin: mezetara joateko, beste munduarekin gogoratzeko, sinistuna izateko, e.a. aholkatzen digu. Horiek alde batera utzita, gauza sentimentalak duda gabe, baina behar bada interesanteak izan daitezkeenak gainontzekoak. Herri txikiotako jendearentzat behinepein.

M. Iturrio



Malezia sorta

"Malezia sorta". Jon (Mikel) Arano. Argitaldaria: Susa. 125 or. 700 pzt.

Ez ohizko poema liburu. 125 orritako liburu mardula da alde batetik eta ez da alperrik galdu ez espazio ez eta autoreak esateko zuen adierazpen premiatsuentzako lekuri, bestetik.

"Bileterik gabe", bere hitzetan "zirri-borro-koadernu- erratua" rekin etorri zen Arano euskal poesigintzaren plazara, nahiz eta hartatik zer salbaturik ere bada-kuskien. Maleziatxo-xorta honekin daturkigu bigarrenegoz, atrebitu-eta. Hemen bizi da eta ez oso gustora gainera, itsasondotarra. Mengaizo batzu asmatu ditu, hortaz, nolabait aurre egitearren parean duen gizarte hōni.

Batek zioen bezala, mundua aldatzeko malezia piska bat. Ez darabil dosi gehiegikorik, ez gutxiagorik poeta goierritarrak. Juxtua eta zuzena, bortitz edo samur, urrutiko gauzetaz aritu ordez, arrapaladan sartzen da Jon hurbiletik izorrazten dioenarekin. Txatxukeriarik gabe, fin gustoko duenarekin.

Bera bezalako "beltzak" munduak beharrezkoak dituela-eta, gauza gehitxo aitortuz maliziatsuegi izateko, aitortuz nazkaturik dagoela indiferenteez, filiak eta fobiak argiro erakusten dizkigu ironia puntadak baino zertxobait gehiago direnez baliatuz.

Arriskatzen jakin izan du Jon Arano, bai eta idazten badakiela erakutsi; froga bikain pasa du. Mezu berri baten jabe, igorle ere badela esan liteke. Hortik, beharbada, urdail eskertzaile-sektore batzuetan egin zaion hutsunea: molestoa da askotan.

K.Z.

BANDRES GESTORIA

U.A.P. aseguruak

Goierrri kalea
Tfna: 88 12 58. ORDIZIA

OSASUN

Belardenda eta dietetika
Naturopata eta masajista:
astearte eta ostegunetan

Goierrri, 10
Tfna: 88 61 14

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN

EKi / GIZON
Hombre
88 27 79
ORDIZIA Santa María, 8

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



HARLORE BITXITEGLA

Apaingarriak

Domingo Unanue Pl.2. Tfna: 88 96 17

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Marieratz, 4
20200 BEASAIN

88 86 64

Urdaneta, 68
20240 ORDIZIA

**construcciones
SUQUIA, S.A.**

HORMA
PREFABRIKATUAK

Txindoki Btxea
Tfnoa: 88 58 00/04
ZALDIBIA

TAPIZ ETA GAINETZADURA
TAILERRA

B i O K, C. B.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

U T O E S K O L
ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

Anima erratuaren ipuina



“Lehen herriren batetan, orduan ere gaur bezelaxe onak eta txarrak denak izango ziren eta, gizonen bat oso gaiztoa omen zen eta jende guztia nazkatuta omen zeukan. Orduan hartu dute denak harrika eta hala behintzat aldegin du mendira, behetik gora ihesi. Mendian aurrera joan da, iluntzeako etxe bat ikusi omen zuen eta *“haruntz joan behar diat gauerako ea inor bizi den edo”* pentsatu omen zuen. Joan omen zen baina huts-hutsik omen zegoen eta ateak zabalik zeudenez bertan geratu zen.

Gero garai haietan anima erratuak deitzen zitzaizkien asko ibiltzen omen ziren, hau da, zerbait falta zitzaizkien animak. Eta etxe honetan bizi zen familiari horrelako anima erraturen bat etortzen omen zitzaion eta teiltatutik zera hotsegiten omen zuen: *“Eroiko nauk ala ez?”*. Hau horrela izanik famili horrek, etxea utzi eta ihes egin zuen.

Gizon hori berriz, han geratu zenean, afaltzeko animaliren bat harrapatu eta okel pusketaren bat erretzen hasi omen zen. Halako batetan hots bat entzun omen zuen goitik *“eroiko nauk ala ez?”*. Eta besteak behetik zera erantzun omen zion: *“nahi baduk bai eta nahi ez baduk ez, baina nere okelaren gainera ez!”*. Eta halako batetan goitik behera gizonaren hirutatik bateko pusketara sartu omen zen hauts guztiak arrotuz. Gizonak berriz bere amorrazio guztiarekin, lehen izaten ziren bezala, subajuan zeuden tenazak hartu eta sukaldeko bazterrera aidean bota omen zuen.

Horrela, berriz ere bere okel hoiek erretzen hasi omen zen, baina berehala goitik: *“eroiko nauk ala ez?”* eta besteak behetik erantzun omen zion: *“nahi baduk bai eta nahi baduk ez, baina nere okelaren gainera ez!”*. Horrela, lehen bezelaxe, gizonaren hirutatik bateko zati bat sartu omen zitzaion goitik behera. Eta hau ere tenazekin hartu eta bestearen ondora bota omen zuen.

Berriz ere hasi da zartagiarekin eta berehala: *“eroiko nauk ala ez?”* eta besteak: *“nahi baduk bai eta nahi baduk ez, baina nere okelaren gainera ez!”*. Izan ere, gizon honi okelak salbatu ezker ez omen zitzaion ezer inporta. Hirugarren aldiz otsegin dio berriz ere: *“eroiko nauk ala ez?”*. Eta besteak: *“nahi baduk bai eta nahi baduk ez, baina nere okelaren gainera ez!”*. Eta hirugarren zatia han sartu omen zen berriz ere hautseta, eta hartu tenazak eta eta bestearen ondora bota omen zuen hau ere.

Hirugarrena bota zuen garaian ordea, “rrak” eta hiruekin gizon haundi bat egin omen zen. “Rra” zutik jaerri eta esan omen zion: *“Okelak jan artean ez”*. Honek okelak jan bitartean ixil-ixilik egon omen zen. Honek okelak bukatu zitueanean berriz zera esan zion: *“nora joan behar diagu?”* eta besteak: *“segi zak aurretik”* esan omen zion eta gizon gaizto horrek zera erantzun omen zion: *“heorrek dakik nora joan behar dean eta heorri joan hadi aurretik”*.

Horrela badijoaz etxetik kanpora eta kanpoko irteeran atxur batzuk omen zeu-

den, baserriko atxurrak, eta esan omen zion: *“hartu zak atxur bat!”* eta besteak berriz: *“heorrek dakik zertarako dean eta heorrek hartu zak”*. Hartu omen zuen atxur handi bat bizkarrean eta soroetatik aurrera joan omen zen indarrean izugarri handi hori, eta noski, bestea ere bai bere ondoren.

Belardi eskina batetara iritxi zirenean berriz lurrean zuloa egiteko esan omen zion anima erratu horrek. Besteak berriz berak zekiela zertarako zen eta berak egiteko erantzun omen zion.

Horrela bada anima erratu horrek berak egin omen zuen zuloa eta bertan idi baten narrua bete urre omen zegoen. Eta anima erratu horrek hau esan omen zion: *“hartu zak hau hitzat! Orduan joango nauk ni pakean zerura”*.

Bada itxuraz anima honek noizbait lapurretaren bat egin zuen eta hil baino lehen ez omen zion inori eman lapurturikoa; hau dela eta ezin zuelarik zerura joan. Beraz gizon honi eman omen zion dena eta orduan joan omen zen lasai zerura.

Beste gizona berriz urre guztia hartu eta herrira itzuli omen zen. Han oso ondo hartu omen zuten eta handik aurrera oso pozik bizi izan omen ziren.

Miren Goikoetxea eta Ana Mari Agirre-ren “Ipuin zaharrak Ataunen” lan marduletik.

Erredakzioaren oharra: Joxemielek bildutako ez gain, bada oraindik zer argitaratu Ataunen.

Sudurraren dardara


Prakak potrotan, faria eskutan, nahiz eta hotz egin alkondara erremangatuta eta bularreko botoiak askaturik, "ostias" hitzetik hortzera eta neskei "goazeman buelta bat ematera" esanez igandero herrira jeisten diren baserritarrei, bihotz bihotzez.

(*"prexioxa" esaten beraiengandik ikasi nuelako*)

Malanttoniren sudurra, benetan sudur itzela; ez ordea haunditasunagatik tikitto eta biribila bait zen-- bere mugimenduengatik baizik: haserretzen zenean sudur zuloak ireki eta hertsu egiten zitzaizkion errinozero amorratu baten antzeko soinua eginez: brmmrr, brmmrr; eta Malanttoniren aharrak errinozeroarenak bezain beldurgarriak ziren, zinez.

Azken garaiotan haserre hauen zergatia beti bera izaten zen: etxeko mutilak: Amunabarro baserrian hiru motiko zegoen gizon izateko bidean: bata Joxe Joakin, 20 urtekoa, bigarren Anjelmai, 17koa, eta hirugarrena Inazio Jabier, 16koa; eta hiruren pentsamendu, ardura eta tema bakarra neskak ziren: neskatalak ezagutu --ahalik gehien--en, berbatan egon, dantzan egin... azken finean --ororen jomuga-- larrua jotzea; eta gure gazteok geizki moldatzen zirenik ezin esan: dohai berezi bat zutelako edo, neskak askotxo zen amunabarrotarren besoetan jausten zena eta horixe zen gure Malanttoni kezkatzen zuena, hainbeste urdanga eduki ondoren ezkontzeko orduan behar bezalako neska fin eta kristau bat faltako ez ote zitzairen beldur bait zen.

Hau dela eta, hor zebilen beti amona gaixoa ilobak nola edo hala bekatutik libratu nahiz: bazterrak miatzen --ea horie-



tako lotsagaberen bat aurkitzen zuen-- inpernuko kondenzazioaren minak eta zoritxarrak aldiro aipatzen, oilotegia arakatzen, baserriaren ingurutan neskatoen bat ikusi orduko unetxo bat ere bakarrik uzteke, ilobei astirik ez ematearren ahal zuen heinean lanpetuz, igandero mezetara berarekin eramanez, mutilen logelen ondoko zorua lapikoz, pertzaz eta aulkiz josten zuen gauez norbaitek irteteko saioa egiten balu bera garaiz konturatzeko, errosario saildua ere errezarazten zien...

Baina hiru morroskook, nonbait ton-toak ez zirelako, beraien jakintza osoa amonaren trabak gainditzen jarritz --behiak jeitzi egin behar zirela, ahuntzak etxera ekarri, lastoa metatu, ximaurre eman, beterinarioari deitu, apaizari gazta bat bidali, etxekonean lagundu, idazkariari eskakizuna egin, alkateari zergak ordaindu...-- bata ez bazen bestea, ia beti lortzen zuten norbaitek alde egin ahal izatea.

Gainera, amonak jakin zuenez, ez ziren bakarrik inguruko neskak ilobekin ibiltzen zirenak: kalekume batzuk ere eto-

rriak ziren, gazteen ospeagatik edo, eta hura bai zela beldurgarria, kalekumeak ez bait zekarten ezer onik baserrietako mutilentzat. *Etxeko ondasunak xahutuko dizkirate etxekalte hauek!* pentsatzen zuen Malanttonik eta nolabait bukatu egin behar zuela horrekin. Apez jaunagana jo zuen eta ezkonduzik ez dauden mutilekin joaten diren neskak elizatik kanpo eta Beltzeburuen eskutan daudela sermoian esan zezala eskatu zion, baina apezak horrelakorik ezin zuela esan, garai haiek iraganak zirela, hori esanen balu neskak ez liratekeela gehiago elizara hurbilduko, atso kontuak ahazteko, gazteak etorriko zirela urteekin bide zuzenera eta antzeko lelokeriaz erantzun zion, ondoren ea bromuroarekin probarik egin al zuen galdetuz. Halako erantzun eskax eta izutiaren ondoren galdera zozoagorik! Baina zer uste zuen abade zahar horrek, bere ilobak katakumeak edo gizagaixoak zirela haien gizontasuna hain erraz itzaltzeko ala? Eta hori pentsatzerakoan mutilen aitona, bere senar zena zetorkion burura: *hura bai gizona! haiek erauntziak!* Ustekabean harrotasun apur bat

sumatzen zuen bere buruan iloben ahalmenagatik.

Baina Malanttoni ez zen lasai gelditu; hura ezin zitekeen izan eta beste ekintza batzuetara jo zuen: oilotegi eta beste toki aproposko txokorik izkutu eta leunetan --bere eritziz txortaleku ederrak zirenetan-- zepoak jarri zituen; bazekien baldarregia zela, mina egin zezaketela, baina inor ez zen hilko, eta izualdi on bat poliki letorkieke, ea emendatzen ziren.

Mutilok --pentsatzen zuen amonak zepoak jarri ondoren oheratzerakoan-- zenbateraino sufriarazten didaten, ene! Txikiena jaio zenetik ama erditzean hil zitzaielako zenbat aldiz ez ote dizkiet ipurdiko onak eman, eta hala ere ezin baretu. Aita egun guztian kalean, tabernaz taberna, hordi baino hordiago, eta ni hemen, astakilo hauek zaindu eta zuzendu nahiz, nahi eta ezin; ni geroz eta ahulago, haiek urtetik urtera basapiztiak baino okerrago, ai San Antonio Urkiolakoa!.

Horiek zituen gaueroko salmoak baina nahiz eta ahul zegoela esan ez zen guztiz egia: urteak zituen, bai, baina osasunak ez zuen oraindik uzten; zamak garraiatzeko edo ganbara igotzeko bazuen indar aski, baita ere sukaldeko lanak betetzeko, ilobei liskar egin edo beste edozein betebeharretan laguntzeko.


Hurrengo egunetan zepo guztiak begiratzaren ere izan zuen nahiko lan nahiz eta ezer ez aurkitu --gazta pixka bat jarri izan balu agian eroriko zen saguren bat--, baina hobe zukeen deus ez aurkitzea ikusi zuena ikustea baino, halako batean zera bilatu bait zuen, horietako galtzerdi bat, bai, plastikozkoa edo... eta berak ontsa ezagutu bai baina aspaldi honetan ikusi barik zuen esne hura, giza hazia, eta harrapagailuan nahita sarturik zegoen. Han etorri ziren izua eta ondoeza, *ai nire bihotza ai ezin dudala arnasarik hartu!*

Ohean bi egun pasa behar izan zuen, galtzerdiaren gaitzak jota. Gazteek irri egiten zuten, aita gehixeago agertu zen etxe aldean eta edatea zeharo laga ez arren, botila ez zuen hain maiz hartzen. Baina amonaren ordua luzaroko zihoan, sendatu zen, aitaren zintzurak berriro ezagutzen zuen ardoaren goxoa, eta hiru mutikoak ba... betikora.

Halako batean, Inaxio Jabierren gantzontziloak lisatzen ari zenean, Tia Juana etorri zitzaion Malanttoniri, izardi patsetan. Lasterka hitz egiten hasi zen baina mihi punttan garatxo eder bat edukitzeaz gain totela zenez gero, Malanttonik lanak izan zituen esandakoa zuzen ulertzeko. Hala ere aurki asmatu zuen amonak zertaz mintza nahi zitzaion atso hura. Azkenik, dena zuzenki jakin ahal izan zuen: Tia Juanak, marubiak biltzen ari zela, ustekabean entzun zuen nola Anjelmaik agintzen zion Errekaldeberriko Eukeniri arratseko zortzietan Bordatxuriko lastategira joateko. Hori esateko ordu laurden bat behar izan zuen Tia Juanak baina Malanttonik eskertu zion mesedea, nahiz eta jende gehiegi jakinaren gain zegoela pentsatu.

Egun hartan, zortziak jo aurretik, Anjelmaik Martinen goldea konpontzera joateko premia omen zuen eta etxetik irten zen. Malanttonik zera esaten zion bere buruari: (b)bai alu hori, bazekiat nik nolako goldea konpondu nahi duan, alproja, baina honetan hik espero ez duanarekin aurkituko haiz, lotsagaldu hori, ez nauk berriro izorratuko. Eta mantala kenduz Bordatxuri aldera abiatu zen.

Amona lastategian sartu zenean dena ilunpean zegoen; ez zen zipitzik ikusten; haztamuka mugitzen zen, ixil-ixilik, lasto tartean ia ia etzanda. Bat batean, esku bat jarri zioten sorbaldan; ikararen ikaraz ez zen mogitu, zentimetrorik ere; beste esku batek heldu zuen, besotik, estuago orain, eta amasa etengo balitzaio bezala, zur eta lur gelditu zen; gero, ukondoan zuen eskua ixtarreraino joan zitzaion behera eta gizon baten hatsa zetorkion ezkerreko belarri eta masailera; amona hiltzeaz zegoen. Orduan, ixtarreko eskua azpiko gonan gora zihoakion bitartean Anjelmai salatzen zuen abots adurti batek mutur



ondoan *Eukeniii* esan zionean beldur bizia amorru basati bihurtu zitzaion eta sudur zuloek, ireki eta hertsiz berebiziko orroa egin zuten: BRMMRR, BRMMRR, BRMMRR, eta izutua Anjelmai izan zen, kakalarri abotsez oihukatu zuenean AMONA??

Xabier Mendiguren
(“Susa”-berdea-aldizkaritik)



Etorkizunaren erronka

Gertu dagoen erakundea dugu

kutxa, garai berriei aurre egiteko.

Teknika- eta giza baliabiderik

eraginkorrenekin, gailentzeko.

Beharrian berriei egokituriko maila

bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.

Alor guztietan aurrera egiteko.

Etorkizun gero eta lehiakorrago

baterantz.

El reto del futuro

Kutxa es una entidad preparada para

afrontar los nuevos tiempos.

Para destacar, con los medios

técnicos y humanos más eficaces.

Para innovar, con servicios de


primera línea, adaptados a las nuevas

necesidades.

Para avanzar en todos los campos.

Hacia un futuro cada vez más

competitivo.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san Sebastián